



# JAVNGOIKO-ZALE

EVSKALDVNE | EVSKERAZ

Indaía zer dan? *Argal-ikuía*  
gogofkeria? Argala.  
zuzena ez dan indaía baño  
indaítuago apala.

Aizkideak indaíak non nai  
aurkituten dauz ugari,  
egia baña bere ondoan  
ez da aurkitzen ain safi.

Ta egi barik indaía zer da  
argalkeri utsa baño?  
Aldi luzerik ez dau iraun ta  
iraungo bez egundaño.

Indaíaren gain iragi dana  
eustazpibako etxea,  
udazkeneko aize aúfeko  
ofi tximur lakotxea,

Egi-zuzentzan indaía bafiz  
ezin leike iñok neurtu,  
orain arte ba eta aúfera be  
ez dau iñok azpiratu.

Egian aurka beste bat beaf  
egi bat bardin-bardiña  
baña orixe da egiñean  
iñoizbe yazo eziña.

Indaía bafiz azpiratzeko  
naiko da beti aldia,  
indaía indaíak beti ilten dau;  
auxe da egi-egia.

Indaíduna ba ez beite poztu  
zuzentza lagun ezpadau,  
berak uste daun baño lenago  
indaí berberak ilgo dau.

# ZER EDO ZER

## IPUIN - IDAZTI TXARAK

*Laño baltzak eta zuriak.*

Yakitunak idazti sakonak, eta gitxik ulertzekoak egiten dituezanean, naiz egien aldezkoak izan, naiz guzura zabalteko idatzi, aranoen antzera goyetan dabiltekoak, banakari bakarik kalte ala onura ekari leikioe, euren mañara eltzeko gai diranak gitxi samar izan oi dira-ta. Guzuzeko idazti sakon ilunak, laño baltzen antzekoak izaten dira, laño baltzak baña beti dira bilduragarri, geyenetan ari ta kaskabarr biurtuta, igali ta lorarik onenak ondatu ta zuzituteko baño ez dira izaten-eta. Ostera idazti sakonak, onak diranean, laño zuri-ilun samaren antzera agertu-aren goiz edo belu bere igalia lur eta landarentzako euri osasunkoia izaten da.

Orixe dala-ta egi sakonen ondorenak onurakoak izan oi diran lez, guzur baltzan ondorenak bilduragarriak izaten dira.

*Egia ta yanaria.*

Geyenari egi sakon eta soilagaz, yanari astunagaz umeai gertatzen yakona yazoten yake. Utsik eta osorik ezin emon,

euren urdala egozteko gai ez dalako. Apurka ta bigunduta emon bearr onurarrik ataratu da. Egiaz be auxe egin bearr. Egia artzeko geyenez gizona ume izaten da-ta, egia osoan artzeko gai ez danean atalka gozatuta emon bearr izaten yako. Berak yakitunen mañara ezin igon leike ta, yakitunak beraganaño yatsi bearr dau. Bestela goyetan dabilenari lez gitxik yafaituko dautse.

Eta ori loztuteko

*Ipuña aukerako bidea da.*

Eta alan gizadiari zerbait irakasten etori danak, ipuin bidez geyen bere asmoak zabaltzen dituz. Egia soil-soil irakatsi ala ipuin bidez irakatsi, gaztai gogor eta esne gozotuen artean dagon aldea dago.

Ipuin bidez egirik mingotzenak gozotuta irakatsi leikez, eta adimenean artu eragin be bai, lur gozatsuak, leunkiro yausten dan euri onurakoia artzen daben lez. Irudi ta ipuña egiaren laguntzale onona da-ta, era ofetan egia irakasteko bide eder eta txalogaria.

Baña, gaiztoak lorik ez dabe egiten, eta gauzarik onenak txarerako biurtzen

dabezalako, ipuin bidez irakasteaz be orixe egin dabe. Ipuña buruan yosita lez gelditzen da, eta onerako ain ona izanik, txafá danean zelango kalteak egin leikezan nok aztertu? Yanaria ain gauza onurakofa izanik, edenaz nastauta artzen ba' da zelango kalteak egin leikezan igafi ete geinke? Ba, orixe da ipuin-idazti (nobela) txafak egiten dabena. Eta txafak bide gustiak azke artzen dituelako onerako baño txafarako ipuin-idaztiak dauken indara askozaz be andiagoa da. Ipuin irakufgaya ba txafá izan ezkeru, bardinean beste edozein idazti baño txafago dala esan geinke, batez be yolas erako irakufgai lez agertzen dalako.

### *Agiriko etsaya baño txafago.*

Agiriko etsayari yarki geinkioz, aspiratzeko eran, baño aizkide lez agertzen yakunean ez da ain ezez. Eta nobelak orixe egiten dabe, edo obeto euron egileak, edena tantaka-tantaka, igafi barik lez, irakufleari artu eragiten daki. Batsuetan, yazokun bat azaltzean, zifnesteduna eta oitura onetakoa toki txafean ipiñita, besteetan itz bat edo beste destañez esanaz, besteetan gauza nabarmenak biziro azalduta, eta baita lotsaren izpirik barik, egiririk garayenak ukatu, eta oiturarik naskagarrienak goralduta; Idazleen lotsabakokeria, noraño eldu dan ez da ezez azaltzen. Eta ori eleferti yantziaz apainduta egiten dabelako kalte geyagota ezezago egiten dabe. Eta yakiña da adimenean saftzen dan guzuf baktzeko biotzean girñaren bat azke geratzen dala, eta girñak adimenen araupetik urten ezkeru... basatikeria nagosi... eta nai non, ondo yantzita agertzen diran artean be bai...

### *Irakufzaletasun kaltegaría.*

Irakufzaletasuna berez gauza edefa da, baño yateko gogoaren antzera, gauza kaltegarriak yateko ba'da, kaltegarriena be bai. Ara zaletasun on bat, zalekeri kaltegarri biurtuta. Gaur bariz irakufzalerik geyenak, ipuin - (nobela) irakufleak dirala egiz esan geinke. Eta geyenez zelangoak irakufi be?..

Paul deunak, bere ikasle Timota'ri idazten eutson, (II ad Tim. IV, 3), Aldia elduko zala, egirik entzun ezinda eta orde entzumenak leusinduko dautsiezan euren gurarien neufizko irakasleak pilatu eta belafiak egitari itxi eta *ipuñetara* biur-tuko eb zala... Gaur gertatzen dana bera...

### *Lagunik txafanak.*

Irakufgai, ipuin (nobela) txafak lagunik txafanak dirala esan leike. Autu txafak Paul deunak diñon lez oitura onak usteltzen ditu (I. ad Kor. XV. 33) eta orixe zio geyagoz nobela txafagaitik esan geinke. Nobela txafá autu txafarako gertu dagoan lagun gaiztoa da, eta non nai eta noz nai irakufi eta nora nai laguntzeko gertu dagoan lagun kaltegarria. Lagun gaizto onen ikastolan ikasten dira gaiztakeririk baltzenak, erailtzerik ikaragarrienak, norbere burua iltzeak; eta gitxienez buruarinkeria, eta ameslaritzea, sentzuna ta zintsotasuna galduaz batera, nobela erdi-erdizko ta gaiztoetan ikasten da. Lagun txafak baño obeto ipuin (nobela) txafak irakuflea beragantzen dau, itsutu egiten dabela esan lei, beragaz bat egiteko, eta aizkideagaitik baño obeto esan geinke, «zeintzuk idazti gogoz irakurten dozuzan esan egidazu eta nor zaran esango dautzut». Gogoz irukurten dana, ba, goiz edo belu gogoaz bat egiten da-ta.

Ori alan da baño batzuk

*Eleñti zaleak ei dira-ta...*

Ori eurak ziñesten ete dabe gero? Bai dira azal eta mamiñez ederño eleñti arauz idatzita dagozan ipuin-liburu onak, eta beste batsuk euskal-dantza garbiekaitik esaten dabena erantzungo dautzue: *So-soak* dirala. Emon bafiz oin idazten diran, azal eta mamin ezer balio eztaben irakuñgai bat, eta ařeta osoaz irakuñiko dautzue eta zatařago ta *interesanteago* dala ba- yetz esan.

Elertizaletasuna ba, aitzaki polit bat baño ez da, beste zalekeri gaiztoagoak zuritzeko....

Idazti oreik galerazteko egiten dan baño gogofago egin beař litzake, idazle eskeřtař batek esaten eban lez, «eleñtien aurka idazteaz gañera, gorputz eraileak baño kalte geyago egiten ebela gogoak erailten ebezalako». Baña, ori

*Azkatasunaren kaltez ei da.*

Ta zer? Edena saltzea zer dala-ta galezten ete dabe? Yanari kaltegarřiak saltzen dituana zergaitik zigofutu? Zoroa zer dala-ta lotuten dabe? Azkatasunak balio ba' dau...!—A! baña ofek kalte egin leikie eta iñok besteri zio barik kalterik egiteko eskubiderik ez dauko. Eta idazle txar-

ak, euren nobela txarřakaz kalterik ez ete dabe egiten? Nok daki zenbat erailtze, zenbat buru-iltze, zenbat gaste ondatu, zenbat sendi sakabanatu diran nobela txarřak dirala-ta? Gaiztakeri bat eginda gero zenbatek ez dabe autortu, idazti txarřak bultzatuta egin ebela? Eta ez dabela kalterik egiten...? Burua utsik ez daukanak olakorik ezin leike esan.

Eta kalte egiten ba'dabe, zer dala-ta ez zigortu? Berarizko espetxe bat egon beař leuke idazle txarřentzat, eřiarentzat eta oi-turentzat, eurak baño kaltegarřiagorik ez da eřez asmatzen eta.

*Katolikotařok ba,*

olango nobela txarřai gogof egin beař dautsegu, eta Paul deunak ondu zituan Epesotařak egin eben lez, eře egin beař dituguz (Act. Apost. XIX). Arek gustien ařean 50.000 denario balio ebezan idazti txarřak eře zituezan. ¡Orixe toki gustietan nobela txarřakaz egingo ba-litz!

Eta ofez gañera *nobela* onak be, diranean, *neufiz*, *onenak* eta norbere beařkunak ondo beteta *gelditzen dan aldian* irakuñi... eta olango irakuñgayetara *ez zale-tu*, bestela... sentzuna igafi barik lizunduko yatsu....

**GAMA.**

# ZER EDO ZER

*Eleiz Ama deuna ta idazti txafak.*

Irakurgai eta idaztietzaz lengo zenbakietan esan dogunez gañera Eleiz Ama deunak, bere semeen eskuetatik idazti txafak ufinduteko dauken eskubideatzaz, zerbait esanda gai au amaitzea egoki deritxogu.

Eta lenen baita ikututxo bat,

*Eleiz Ama deuna ta idazti onetzaz.*

Eleiz Ama deuna, zeruko bidea giza-diari irakatsi eta goiko eskañ bidez, betiko zorioneraño eroateko Kisto Gure Yaunak irasitako bazkuna da. Eta Yosü-Kisto gure Yauna, «Argitiko Argia» (Symbolo A) dalarik, Bera da «Iudiratzen dan gizon oro argitzen dauzan bakafä», Yon deunak irakasten dauskunez.

Eleiza ba, bere izakerearen indañez argi zalea da. Egi Berbera da ba bere Aita, eta egia zabaltzeko irasi eban, ta Egiaren bidez gaizkatuko gaituz. Zeruko Argia irakasteko beañkun eta eskubidea Eleiza'k bakañik dauko.

Egia da bere bizitza. Egiaren bildufik ezin euki ba, Egi barik bizia galduko leu-ke-ta. Auxe dala ta Egia zabaltzeko gai

diran bide gustiak onesten ditu. Idazti onak ba, Egia zabaltzeko ain egokiak diralarik, Eleizak abegi onez artu, onetsi, eta idazle katolikotafai semerik onenai lez begiratzen dautse, eta euren zaindari tzat, Sales'tañ Pantzezka idazle deun ospetsua emon be bai.

Era batera naiz bestera egiaren alde idazten diran idaztiak albait ugarien idaztea geure Eleizaren pozgafi, eta geidearen aldezko egiñen bikaña da. Eta gizaldi gustietan ikastola onak baster gustietan, al izan daben giñoan zabaltzen alegindu dan lez, idazti onakaz berberorixe egin dau.

Au begiak zabalik daukazanik ikusten dabena da, eta lateri ta gizaldi gustietako edestiak egiztuten daben egi argia.

Alan da gusti be,

*Eguzkiaren argiak min emoten deutsen «gautxoriak»*

Eleiza Ama eta bere yafaitzaleak ilun zaleak dirala esaten asañtu egiten dira. Nortzuk ete dira ilunzaleak: Eguzki argitan dabilzanan, ala euren antzera eguzkitatik iges egiten dabenak? *Bakon* pantzetzkatañ yakintsuak esaten eban «yaki-

turi gitxik gizona Yaungoikoagandik urintzen ebala, eta yakituri askok Yaungoikoaganatu».

Eta auxe befasatan dausku Eleiza Ama deunak, Batikano'ko Eleiz Batzar ospetsuan; «Eleizak... on-ondo daki yakidia Yaungoikoagandik datofela eta bea' dan lez erabili ezker, Yaunaren eska'ra lagun dala, Yaungoikoagana eroaten dabela». (Const De Fide, 4'n. atal). ¿Zer dala-ta *gautxoriok* artegatzen ete dira? Benetako yakiturian alde dagoalako?—Ofegaitik ez?.. Orduan guzufe'zko *yakituri* (?) edo dana dalakoaren alde ez dagoalako izango da. Eta egizko yakituriaren alde dagoanak, guzufe'zkoaren kaltez ekiteko eskubide ta bea'kuna ez daukoz? Bata maite ba'dau bestea ez dau gofotauko ba?.. Guzufe'zko txindiaren etsai gogofena nor ete da, egizkoa egiten dabena baño?

Ba, Eleiza Amak eskubide ori erabili baño ez dau egiten,

### *Idazti txar'en aurka*

Yarkiten danean. Eleiza deunak ziñestea zaindu ta zabaldu, egiak garbi irakatsi eta ekandu onak zabaltzeko bea'kun eta eskubidea dauko. Eta beraz Eleiz Legediak (1395 Can.) diñon lez, Eleizako nagosiak, «ofetarako zioa danean, idazti (liburu) txar'ak debekatzeko bea'kun eta eskubidea dauke». Beraz ziñeste ta ekandu onen kaltezko idaztiak irakurtea eta eukitea kristiñau'ei debekatzen dautsezanean ¿nok dauko zer dauko zer esanik? Ofetarako eskubiderik nok ukatu ete leikio?

Eta galera'zteko eskubidea daukalarik, Kristiñau dan kristiñauak, burua makur'zteko bea'kunik ez ete dau eukiko? Eta yaramonik egiten ez dautsona, kristiñau ona izan ete leiteke?

### *Eleiza, Amarik samufena*

dalako, bere semeen gogoai kalte egin leikioen idaztiak esku-artetik kentzen ale'gintzen da. Eta ama batek, yanari kalte'gañiak bere eskuetatik semeari kentzen dautsozanean, bere bea'kuna baño ez dau betetan eta orixe egin ezik, ama ontzat be ez genduke eukiko.

Eta semea ori egiten dautsolako amaren kaltez yaikiko ba'litz, gustiok sentzunbakotzat etsiko geunke.

Ba, ziñestea baño gauza bikañagorik ez izan, eta ofen kaltezko idaztiak debekatzen dituanean, aikomaikoetan azten diranak sentzuna non ete dauke?

Orez gañera,

### *Gizar'ean egunoro dakusguna*

da, gorputzerako kalte'gañi diran gauzak lege arauz bakañik saltzen dirala; salgei dagozan yanariak ofetan aituten dabena, agintarien aginduz, azte'rtzen dituala, eta bada-ezpadakorik aurkitu ezker, saltsalea zigofu be bai, eta ori len aitatutako *gautxoriak* ontzat dauke. Zer dala-ta Eleizak bere semeen idaztiak azte'rtzen dituanean, eta egoki ez diranak debekatzten dituanean ainbeste istiñu?

—Oldosteko azkatasunaren aurka dala..? Bultzi bat bidetik bialdu baño len atal gustiak ondo alkaftuta, ala bea' diran lez eginda dagozan azte'rtzen dabenean, egin dabena asafetu ete leiteke? Ondo oldosteko azkatasuna beti dauko ta edonork, txarto oldosteko bañiz iñok bez eta iñoz bez.

### *Gauzarik ba'fegañiena*


Azkatasuna beti espanetatik dingilizka daukenok, gora eltzen diranean, eurai egoki ez yatofken edozer galera'zteko beti gertu dagoz, eta gogof galera'zi be. Bai ba, ainbeste maite dabena ezker, azkata-

sun gustia eurentzat nai izaten dabe ta...  
besteak baraurik gelditu bea...

Eta au egunoro ikusten doguna dalako  
ia afitu be ez gara egiten. Baña Eleizaren  
eskubideen aurka dabilzazanak, ez ete  
dira gogoratzen lateri gustiak ia egunoro  
egiten dabena dala? Aspaldian saritan ira-  
kurten da baten Prantzian agintariak idaz-  
tien bat debekau dabela, *Margaritte'n* ira-  
kurrgaya egin eban lez, bestean urlie idazti

galtzea galerazi egin dabela, eta geyago  
ez luzetzearen, ondiño egun gitxi dala ba-  
dakizue *azkatasunaren paradisu*an, bol-  
tsa bigaz bat egiten zale diran boltxebi-  
kiek zer egin daben? Ba, *Barnard Shaw*  
ingelandañ idazlearen antzerkiak, eurak  
agintzen daben toki gustietan galeraso.  
Eta azkatasuna..? Osasun onagaz Yaun-  
goikoari eskerak....

**GAMA.**





# ZER EDO ZER

## URTE DEUNEN BARI LABURAK

Urte Deuna Eleizan antxiñatikoa da, dirudienez ba lenengo gizaldietatik, gizaldi bakotxen asierako urtea berariz ospatzen zan eta Eleizak parkamen ugariagoak emoten zituan.

Baña edestiz dakigunez 1300'gn. urtea ezkerokoa da. Aldi onetan bai'eizan Saboyataf eun da saspi urtedun agurea, bere txiki aldian ospatu zan Eungafen urteaz gogoratzen zana, eta bari au zabaltzen ekin eutsolako, kistafen eskariz VIII'n. Bonipazi'k Yubileo edo urte Alaitsua ospatzea erabagi eban.

1300'eko otsalaren 22'n iragafi eban, geroztik eun urterik eun urtera ospatzeko. Lenengo urte deun onetan, parkamena irabazteko ta, 2.000.000 bidezti baño ge-yago eldu ziran, eta euron artean, Karlos Martel bakalduna, Giotto ta Zimabue margolari ospetsuak eta Dante olefkaria bikaña.

*Baña giza-bizitza labura dalako.*

Eun urte askotxo zirala-ta kistafak, Pe-

trarka ta Kola di Rienzo'n bidez, bigafen urte deuna eun urte baño len ospatzeko eskatu eutsen. Eta Klemens VI'ak Aviñon'en egoala kistafen eskariak aintzat artu zituan, eta 1350'ko Urte Deuna iragafi eban, eta auferantzean befogetamaf urterik befogetamafa ospatzea erabagi be bai. Aita Santua orduko gora-berak zirala-ta, Aviñon'en bizi zan afen, Urte Deun onetan 1.200.000 bidezti inguru Eromaratu ziran, euron artean, Birgite eta bere alaba Katariñe deuna, Petrarka olerkaria eta Ungari'ko bakalduna.

*VI'n Urban Aita Santuak.*

Yosu-kisto gure Yauna'k mundu onetan igaro zituan ogetamairu urteen gomutaz, Urte Deunen bitarteko aldia ogetamairu urtera laburta eban, eta 1390'rako iragafi. Baña bera aurfeko urilan il zan eta bere ondorengo Bonipazi'k ospatu eban.

Aita Santu berberonek 1400'n, aldi atako naspilak ibituteko, beste Urte Deun bat iragafi eban ez baña idazki bidez, parka-

mena irabazten Efomaratzeko kistañai dei egiñaz baño.

Naspila amaitu ondoren, 1423'n V'n Martin'ek beste Urte Deun bat ospatu eban, baña Europa'ko gudak dirala-ta, Bula deritxon idazki bidez iragafi barik.

### *Seigafen Urte Deuna.*

Izan diranetatik ospetsuenetarikoà izan zan. V'gn. Nikolao'k iragafi eban, eta guda ta ixufi bildurgaria ebilen afen; izugarizko gizosteak Efomaratu ziran. Aita Santua bera ortozik eta soñeko txiroaz ikeitzen ibili zan, baita gexoak poztu ta eleizak beaftsuei laguntzen. Ara Coeli deritxon prantziskotafen lekaretxean, lekaide-tan bakañik 3.800 inguru bildu ei ziran. *Pastor* edeslari ospetsuak diñonez urte onetan Ate Deuna lenengoz idigi zan.

### *Urte Deuna ogetabost urterik ogetabostera.*

II'n Paul'ek 1464'n erabagi eban afe-rantzean Urte Deuna ogetabost urterik ogetabosteraos patzea. VI'n Sixto'k, erabagi au dendatuaz 1475'erako Urte Deuna iragafi eban. Bideztien artean ospetsue-nak, Napoles eta Dinamañka'ko erege, Bosnia ta Chipre'ko eregiñ eta beste ba-kaldungai batsuk izan ziran.

### *1.500'eko Urte Deuna.*

VI'n. Alexander'ek ordurartekoak baño andikiroago ospatueban. Iru aldiz iragafi, eta lenago Ate Deuna idigi zala esan do-gun afen, Aita Santu onek berarizko zere-moniak agindu zituan. Batikanokoa berak zidar ufezututako mañuaz idigi eban, eta iru kardenal bialdu zituan beste iru eleizako-ak idigiteko. Bidezti-talde izugaria-ak eldu ziran parkamen au irabazten.

### *Bederatzigafen Urte Deuna (1525)*

Klemens VII'ak iragafi eban, eta Ate Deuna zabaltzeko ufe utsezko mañua Aita Santuak erabili eban. Andikiro Urte Deun au ospatu zan, baña bideztiak ain ugari ez ziran izan luterotafen naspil, eta ixufia Italia'n zabaldu zalako.

1449'n III'n Paul'ek amaigafen Urte Deun Alaitsua iragafi eban eta il zalako bere ondorengo III'n Yulio'ren al-dian osotu zan. Zio au zala-ta Ate Deuna, ez zan idi-gi otsalearen 24'arte, eta itxi be beluago egin eben.

Bidezti asko Efomaratu ziran, eta ospe-tsuenak gure Zaindari ta anai Loyola'taf. Eneko deuna, Neri'tar Pelipe Deuna ta Miguel Anjel margolari bika a.

Amakagarena, 1575'n XIII'n Gergori'n al-dian izan zan. Aita Santua'k larogei urte gañean euki afen, apalik eta txiro yantzita, Mañadi Deuna belauniko igon eban eta beste bidezti askon artean Boñomeo Karlos deuna, Neri'tar Pelipe, Peli Kantalicio deuna eta Tasso olerkaria eldu ziran.

### *1600'n urtean.*

Amabigafen Urte Deuna VIII'n Kle-mens Aita Santuak zabaldu ta berau gexoak gañtu ebelako ufeingo urteko urtañila-ren 13'arte ez zan itxi. Aita Santuak berak sasi bider lau Eleizak ikeñtu zituan eta ortozik ibili, ta ogi ta uraz barau egiñaz gañera autortegian yafi ta gexoak ikeñ-tzen sañitan ibili zan.

Amairugafen Urte Deuna VIII'n Urba'n al-dian, 1625'n ospatu zan. Uyol andi batek Batikano'ko Eleiza'ra yoatea galerazi eban, eta Santa Maria in Transtevere de-ritxona Batikano'koaren orde-z Eleiz deun-tzat autu beaf izan eben.

1650'n amalaugafen Urte Deuna, X'n Inozentio'k iragafi eban. Urte onetan

ziñausle, yudař eta maomatař asko oneratu ziran, eta bildu ziran bidaztientzat Elizan tokirik ezda, bein baño safiagotan, atari-an bildutako oste izugafiari Aita Santuak bere onspena emon beař izan eutsen.

X'n Klemens'en aldian izan zan amabosgařen Urte Deuna. Aita Santuak, zař zařa izan ařen, lastazun ikasbide ederař emon, eta bidezti askori oñak apaltasunez garbitu eutsezan. Bideztitan 1.000.000 baño geyago eldu ziran.

### *1700'eko Urte Deuna:*

XII'gn. Inozenzio'n aldian egin zan. Berau zař eta gexoti zalako, asierako eleizkizunak ordelari bidez egin zituan, Aita Santua urte atako iraiřan il zan, eta Urte Deuna ondorengo XI'gn. Klemens'ek amaitu eban.

Amasaspigaren Urte Deuna, XIII'n Benedicto'k 1725'n iragari eban, eta Yubileoaz batera Laterano'ko Eleizan Eleiz Batzařa egin zalako andikiroago ospatu eben.

Bideztiak ugari ba ugari izan ziran, eta euron artean 370 yopu (esclavo) kistařak, belgundarien bitartez azkatasuna lortu ebenak, eldu ziran. Eleiz ikeřtzeak ortozik egin ebezan, eta Aita Santua ikeřtu be bai.

Amazortzigarena, XIV'n Benedicto'k 1750'n iragari eban. Gizozte andiak eldu ziran. Irutasun Deuneko bazkunakoak egun bakoitzean 4.000 baño geyagori ostatua emon eutsen.

Emeretzigaren Urte Deuna, XIV'en Klemens'ek iragari, eta il zalako ondorengo VI'n Pio'k 1775'n ospatu eban. Gizoste

ikaragariak bildu ziran Urte Deun onetan. Zertzelada au naiko da: len aitaturtako Irutasun Deuneko bazkunak, iru egunean bakařik 400.390 bideztiri ostatua zuzendu eutsen. Onuratsua be gřstiz izan zan; D'Alambert eleizaren etsayak autořtu eban, Urte Deun onek Parantzeko Matxinada ospetsua ogei urtean atzeratu ebal.

1800'gn. urtean Europa naspilduta zegoalako ez zan Urte Deunik ospatu.

Ogeigarena, 1825'n XII'n Leon'ek ospatu eban.

Gizoste ugariak bildu ziran Eřoma'n eta euron artean gero ainbeste urtean Aita Santu izan zan Joakin Pecci (Leon XIII) ondiño ikasle zala.

1850 eta 1875'n, lateři gora-bera ta naspilak eragozten ebelako, ez zan Urte Deunik ospatu, eta urengo XIII'n Leon ospetsuak 1899'ko orila 11'n urengo urterako iragari eban. Gustiz andikiro ospatu ta Eřoma'ra urte atan eldu ziran bideztiak 1.000.000 baño geyago izan ziran.

### *Ogetabigaren Urte Deuna.*

Igesko ofila'ren 29'n Gure Aita Santu guřgari XI'n. Pio'k iragari eban eta urte onetan ospatu beař dogu bere asmoak bete eta Aitarean dei samuřari zintsoro ta seme maitasunez erantzunaz.

Batez be, otoi, lastasunak egin, parkamenak irabaziaz ofetarako al dabengustiak Eřoma'ra bidezkundez yoanaz. Irakuři bařiuro azkenengo zenbakian argitaldu gendun gure Gotzain agurğariaren dei sutsu ta samuřa...

# Lorak lez..!

Loratxo politak  
udabañian,  
ixil sortzen dira  
aran ertzean.

Legun, guri-guri  
margo bikañez,  
apaindurik dagoz,  
poz iribañez.

Intza gozo-gozo  
euren gañera,  
yausten da leunkiro  
atsedentzera.

Eta eguzkiak,  
adiskide lez,  
izpi samuñenak  
bialtzen dautsez...

Baña, bizitzaren  
uskeri utsa..!  
Egun gitxi bañu  
begiraturik,  
auxe dakusdana:  
Lora bikañenak  
aul igarturik....!

# ZER EDO ZER

## KRISTIÑAUEEN GARIZIMEA

**B**EROGEIKARO edo Garizimea, Eleiza-  
ren lenengo gizaldietatik era ba-  
tera edo bestera ospatzen izan da.  
Gora-bera asko izan ditu, eri batzuetan  
era batez, beste batzuetan bestera, gizal-  
di batsuetan gogofago, beste batsuetan  
bigunago baña beti asmo bategaz. Kistañ-  
ak beti Gariziman lastasun aldia, damuta-  
sun aldia, biotzak Yosú-kistoren Befbizte-  
rako gertatzeko aro aukerakoa ikusi dau.

### *Lenengo gizaldietako Garizimea.*

Gaur egunean egiten dogunaren aldean  
gogoña zan benetan. Egun gustian, gabe-  
rarte ezer yan barik egon bea; eta ordu-  
an be ogi ta barazkiak bakafik yanda.  
Gaur barauak gitxitu, eta gustiz bigundu  
dira, eta ia esan geinke barau *gura* ez da-  
benak egin bakafik laga leikela, *ezin* dabe-  
nak asko ezin izan leitekez-eta. Eta alan-  
da be amaikatxo aitzaki eta zer esan oar-  
tzen da gaurko kistañ epelen artean! Ain  
ezez izan eta gogo gitxi agertzen dabe-

nak, epelkeriaren belañiak erakusten ditu.  
Eta batsuk bai'dira, baraurik egiten ez da-  
benak, oingo barauak, ezezegiak dirala  
-ta aintzat artzen ez dituezanak! Au kir-  
tenkeri bat dala igarteko ia bururik be ez  
da bea; nori bururatu leikio ba lege bat  
ez betetzea, ezezegia dala-ta aitzakitza  
artuta? Ezeza dala-ta aintzat artu ez? Ori-  
xe da benetan gogo txafekoa izatea.

### *Garizimearen itzala*

Igaro diran gizaldietan andia izaten zan.  
Gu artuta izteko añakoa. Orduan barau  
ta lastasun gogofez gañera oituretan era-  
gipen andia eukon. Auzitegiak itxi egiten  
ziran Gariziman; yolasak be agintariak  
galerazi egiten ebezan; eizara yoatea be  
egoki ez eben esten izkiurik (arma) ezin  
erabili zeikian; eta gudaketak be Garizi-  
ma gustian galerazo egiten ziran....

Eta izan be,

*Burua argitu, biotza garbitu.*

Eta laztasun bidez girñak eziteko, gogoko gentza, ixiltasuna ta bakartasuna egoki baño egokiago dira, eta oregaitik len aitatu doguzan gauzak ain bakantzat ez doguz euki bea, Eleiza Amaren asmoak Gariziman betetzeko egokitzat baño. Eta orain be Eleiza Amak orixe eskatzen dausku, baño bigunkeria, unetaraño sartuta daukogulako, ume argalen antzera atzen gaitu. Bigun-bigun antxiñako gogof-tasun barik azalez, baño bañuan gurari bardina agertzen dausku.

### *Eleiza Amak gura dabena*

da, Garizimako aldian, gure siñeste epela piztu, argitu ta sendatzeko, Kristiñau-likasbidea ikastea, itzaldi onak entzutea, zerutaf egiak gogaldu ta gure biotzean sustaftutea. Olantxe gure burua argitzen alegintzen da. Biotza garbitzeko bañiz, geure oben, pekatuen garbai eta damu zintsoa eta autorkuntza-bidez biotza garbitu eta Pasko aldian Gure Yaunaren Gorputz eta Odol edefaz yanaritzea gura dau. Eta geure oben zofa ordaintzeko eta girñak eziteko, barau ta lastasun ariñak agintzen dauskuz. Gauza efezak, gogo ona daukanentzat; gogo txafekoentzat gustia ba izaten da sail.

Gauf egunean iru asmoak zelan betetan ete dira?

### *Osoan, erdizka ta laurenka.*

Barendik, nai non, noz nai, katolikotaf zintzo diranak, Garizimeari betozko ilunik ez dautse ipinten, euren gogoarentzat aldi onurakoftzat esten dabe: eta albait onura geyen ataraten alegintzen dira: Kristiñau-likasbidea ikasi, yolasak itxi, barau-aratuzteak egin eta gogo - arasoetan ardura geyago beste aldietan baño be artzen da-

be. Onek zoritxafez ugarienak ez dira izaten.

Beste talde bat, erdizka artzen dabena, ugaritxoagoa da. Oneik kistar txafak diranik ezin leike esan, baño beroak diranik be ez; edo obeto esateko, kistar gustiz txafak ez, baño onak be ez. Epel xamafak ostuten azita. Igandero yaupa entzun eta Paskoakoa egin, ori bai, besterik ez asko. Garizimeko barauak eurentzako diranik bururatu be etxake egiten; ofek barauok-eta abade ta beato xamarentzat itxiten dabez, eta, lan andirik euki ez afen, yan ederfo egiten dabe. Gorputza ondo euki ezkerero arimeak afdura andirik ez dautse emoten. Kristiñau ikasbidea-ta, *kalabazak* artzeko lain yakin afen, ori be umeentzat itxiten dabe. Beraz itzaldien bat entzuten ba'dabe ta Paskoakoa egin ezkerero, ufengo urterarte Yaungoikoak gura ba'dau. Onein eta beroen artean beste maña bat bai'da, baño gaurkoagaitik bakean lagako dautsegu.

Azkenez bai'dira beste batsuk, Aratuzteetan egiten dituezan yan edanak ikusita uste lei Garizime danean baru egiteko asmotan dagozala baño bai zera! Gogoa eukita yan ez?—Ori ia pekatutzat daukielea esan lei. Onek aragia izteko egunean bigili-yan edefa andreak ipinten ba'dautse yan ederfo, Gariziman ba'dagoz ia gogoratu be ez, eta azkeneruntz, etxekoen sermoyen bildufez edo, *txartela trukatzek* zerbait ardura emoten dautse. Orixe zelan edo alan egin ezkerero... lengo lepottik burua... Oneik egunokaz dabilen aizearen antzekoak dira... preskoak eta zoritxafez gero ta ugariagoak.

### *Baña Kristiñau zintso*

izan gura dabena oso-osoa Garizime legea betetan alegindu bea dau.

Kistař ikasbidea ba'daki ikasi obeto eta irakatsi; barau al ba'dau zintso egin. Barau egitea be Eleiza Ama deunaren agindua da-ta, eta ez egitea pekatu. Itzaldiak entzun, egi zerutařak gogoan ařtu eta kistař zintso lez betetan alegindu.

*Eta amaitzeko.*

Barauak aldi onetan onak dirala osagile ta yakintsuak ao batez autořtzen dabena da. Gexo geyenak, batez be ondo bizi diranen artean, geyegi yatetik datozela be, ao batez autortzen dabe. Eta baraurik egin barik gexorik ia ez da osatu be egiten, osagileak agintzen daben *dietea* baraua baño besterik ez da-ta. Gogoarentzat ain ona izan ba, eta gorputzarentzat ain onurakor, eta onez gañera Eleizaren


agindua izan eta zer dala-ta egin ez? Kistař zintsoak ez diralako.

*Ez aitzu ba*

lařegi yatea eriotzaren laguntzalerik onena dala, ipuin onek erakusten daskun lez.

Eriotzea ei ebilen bein baten laguntzale baten bila. Gudegaz gogoratu zan, gudeak yanari asko emoten eutsola-ta, gudatan ba eriotzeak asko ařapatzen ditu. Baña uste eban lagun ohea aurkitu zeikiala eta ixuřia deitu eutson. Onek asko ekařten eutsozan, baña ez zan asetzen. Eta azkenez buruauste andi ondoren auxe laguntzalerik onentzat autu eban: *Yanariz betetako mai edeřa*. Auxe dala-ta esakerea da: *Yanari edeřak espateak baño geyago il dituala...*

**GAMA.**



## UME GAXOAK BE...!

Mendi egalen  
txokotxo baten  
gařbi sořtzen dan  
ituřitxo,  
alai azkař ta  
iřibařeka  
gelditu barik  
ibaira doa.

Yayo ta lasteř  
alaitasunak  
igesten dautso  
arpegitik  
eta yoranez,  
gelditu barik,  
ibayan bila  
doa beti.



Ur loi, likitzak  
adiskide lez  
urteten dautso  
biderdira,  
eta řtamala!  
lagun egiņik  
batera doaz  
itxasora...

Mendi egalen  
txokotxo baten  
gařbi sořtu dan  
ur gardena,  
nok uste leike  
berbera dala  
ibayan doan  
ur zikiņa!...

**GABIREL**

# GURUTZALDUAREN GARAITZA

**N**EKE-SAMIÑIK goñienen erdian; gorputza zauriz yosirik, zigoréz ufatuta, eriotza lotsagafi ta ikaragañiena emoteko, Koskotegi'ko mendian lapuf biren erdian euren buru bai'litzan, gure Yaun maitea agertzen da...

Gustiai on-egiteko, gustiak oneste-ko zabaltzen ziran esku deunak, neke ta atsekabepean bizi ziranai lagundu ta obendioen bila yoateko ainbeste bideñ nekatutako oñak, iru untze gogoréz gurutza bati yosita dagoz. Mitasun eta eruki neufigabeko itufia zan Biotz deuna, samin eta lafitasunik andienak, itsaxoko uin gazien antzera alkaren leyan zapaltzen dabe... Obendioak beragantzeko nekatu zan burua, oñaze ikaragañizko arantzaz inguratutirik; eta Egiaz betiko zorionbidea irakasteko beti zabaldu zan ago deuna beartzunez mingoztuta...

Begien aurfean daukon giza-taldeak, abere-piztien ankerkeria baño gogofkeri baltzagoz, ifi, ixeka, eta laidoz diñotso: «Yaungoikoaren Seme Ba'zara yatsi zaite gurutz ofetatik». Eta

onen antzeko biraoz gogo deuna samintzen dautsenai ara Yesu maitagañiak erantzuten dautsena: «Aita azketsi egiozue ofei, zer egiten daben ez dakie-ta». (Luk, XXIII-34).

\* \* \*

Ainbeste gaiztakeriz afituta izate gustiak artegatzen dira. Eguzkiak, ainbeste lotsagañikeri ikusi eziñik bere izpiak gordetzen ditu, arkaitzak gizonaren biotza baño erukioñago samin-tasunez zatitzen dira, luña azken zotinak egiteko lez dardaratzen da, eta abere ta egaztiak ofua ta oyuka euren samiña agertzen dabe. Eta egiz ofetarako ziorik naiko euken.

Zeru-lufen Egile ta Yaubea, Yaungoikoaren Semea, Egi, Bide ta Bizitza berbera oñazez egoan. Egi berbera zan. Berak aurtemin etsayei esan eutsen: «Niri ziñestu gura ezpadeustazue, nire egiteari begiratuta ziñestu egizue». Ontasun utsa zan. Bere bizi gustia on egiten igaro eban. Atseka-betuak poztu, elbafituak sendatu, itsuak argitu, ilak piztu eta gaizkin-



duak azkatzen ditu. Toki gustietatik on-egiten igaro zan. *Pertransiit benefaciendo...*

Egun baten, afrika egin gura eutsoen bere etsayei, esan eutsen: On asko egin dautzuet; ¿zein on-egite dala-ta afrika egin gura daustazue».

Gurutzalduta agertzen zana, Erúgetasun berbera zan. Berak egun baten etsai amofatuei esan al izan eutsen: «Nor da zuen artean obenik egiz ezari leikedana? Egia ba'diñotzuet, zer dala-ta ez daustazue zñesten? (Yon V-46).


Alan da gusti, be, gure maitasun utsez, gure obenen estuntzak ufatzeaf-en, bere gurariz bizitza gurutza baten emon gura izan eban, gaiztakeri gusti-ak garaituta.

Ontasun eta gaiztakeriaren arteko bufuka da. Girña gaiztoak, gofoto, afo-keri, bekaitz eta gaiztakeri gustiak alkaftuta, Egi ta Ontasun berberaren aurka yaiki dira. Bildots otsana, otso amofatuen agin artean yausi da. Eriotzarik lotsagafiena gurutza baten yosita emon gura dautse. Legeak berak gurutzatik zinzilika ilten zana gaiztetsi-tzat eukiten eban. Garaitza ba, Yesu-Kristo'ren etsayena dirudi....

\*\*\*

Ogei gizaldi igaro dira. Gauñ gizarteko, gizon zintzo, on eta yakintsue-nak, gurutzaren aúfean burua makuf-tuta ikusten ditugu. Gurutza da atsekabetuen poz bakaña, gurutza eri-etxe-etan eroapena ta auzitegietan zuzenta-sun-bidea irakasten dabena, gurutzaren maitasunak asafe gustiak ibituten ditu, biotz gustiak gurutzatik zinzilika lez ikusten dituguz, eta bere maitasunez nekerik andienak pozik igaroten dira. Gurutza obendioen itxaropen bakaña da, zintsoen zoriona, zuzenbidez ibili gura dabenen bakaldun....

Gurutza, Egia, Bizitza, ta zorion bi-dea maite dabenen ezaugafia, Gurutza bidez Yesu maitagafiak gaiztakerien erpe artetik atara gaitualako. Len gau-zarik lotsagafiena zana gauñ maitagafi ta guñgafiena da. Len idatzita egoan: «Urkabean eskegita dagoan gaiztetsia» Orain Paul deunak diñon lez: «Kfisto'k



Legeko gaiztetsetik gaizkatu ginduzan, gugaitik bera gaiztetsi egiñaz» (Ad. Gal.-III-13).

Garaitza au yaritxi dabena gizon utsa ete...? Gudari-buruak Koskotegi mendian bertan esan zituan itzak gauñ gizadi zintzoak befesaten ditu: «Egiz gizon au Yaungoikoaren Seme da.» (Mark. XV 38).

Ziñez esan geinke ba Chateaubriand ospetsuaz: Gurutza bat guñtu eragin dabena, guñtuteko gaitzat gizadi atsekabetua, eta onbide yasarpetua eskiñi dauskuna, ori zin egiten dogu, ori loftu dabena Yaungoikoa bakafik izan leite-ke....»

M.'tañ G., Jaup.

# SITIO...

**J**ESUKRISTO gure Jauna Bere bizitzako unerik itzalenetara eldu da; Bere eskintza, Bere oparia S. Pablo'k dirauskun lez, bein bakafik eginda, aufferko ta ondorengo gaiztakeri gustiak garbitzen dituan oparia eskintzen da Jesus maitia; «per proprium sanguinem». Bere odola, Bere gorputza, Ber Bera eskintzen da «ad emundationem... ab operibus mortuis» gure gaiztakeri gustien garbikai ta sendakaitzat; «obediens usque ad mortem» agindupeko, esaneko eriotzaraño eginda gure Jauna eta Aitaren gogua ziatz-ziatz beteko dau; kurutzeko egikera ta itz gustiak be neurturik daukaz; Israëlgo iragarliak gusti-gustia iragarita dauke euren idazti deunetan; Jesukristo gure Jaunak «nec iota unum» itztxo bat be ez dau bete bage itxiko.

Jesus gure Jauna kurutzian oñazez, nalgabez itota dala, egañi da; kurutzian ilten diranañi euren saurietatik jarioz urtetzen jaken odolagaitik egañi bizia etoñten jakela esaten da, Jesus maitiak Getsemaniko ixerdi lañian, zigorkaldian ta gero kurutzian, zeukan odola gure maitasunez, gañezka ixuri dau, «sitio... egañi naiz, diño ba kurutzetik. Kristau maite, biotzik zitaela, gogofena be, nor edo nor nai ta gaiztua, deungia, bildurgañia izan añen, bere gaiztakerien zigofñtzak eriotzara ba daroye, nai ta ez, berez, bigundu, efukitu ta zigofa ikusteko bafiz ez dauke bere begiak indañik; Jesusentzat baña, zuzentasuna, bildotz apala lez efubagia izan añen ez dago efukirik; oñazez itota ikustean, algaraz poztutzen dira bere etsaiak, ifi bañez kurutz pian dira pozez, euren

gofotua ase betia daukela judatarak.


Kurutzian ilten ziranentzako euren miñak apur bat epeldu ta bigundu zedizentzat, ardañ usaintsua egiten oi eben aldi aretako emakume efukiorak; zigortuani oñazeak bigundu edo beintzat oñaze ta miñen ezauera bizia motelduteko, ardañ: «Sitio... egañi naiz diño Jesus maiteak; azkenengo atsedem laburñ ori be ukatuko ete dautse ba? Azkenengo orduan beintzat, zein da amatatzen ez dan asañia?

Jesus'entzat ba, azkenengo orduan be ez dago efukirik: ori entzutean Bera zaintzeko ¡Jainkua zaintzeko! ipiñita diranetatik, gudari batek, sorki bat ospiñez busti ta ematen dautsa aora, Jesus'ek aren gañastasuna sumatzean aldendu zituan bere espanak; bete da ba David eñregiak iragarita eukana «ñin siti mea potaverunt me aceto nere egañian ospiñagaz asetu nabe».

Kristau maite: Jesus egañi da, gure egañi da, gure arimen egañi, gure maitasun egañi; gure arimako atian da Jesus, zain, bafura sartu gurian, Bere eskañez, gure arima, Berenez Jainko ispiñu dan arima ornidñ ta jantzitzeko Bera egin nai da gure arimaren arima lez, Berak igitu bizkoñtu ta erabiñi nai gaitu Bere Beriak lez; Bere eskañez, Bere tafteko, Bere aizkide, seme kutun eta Jainko zati lez, ori egiten dau Jesukristoren eskañak, Jesus'en laztanak, gure arima Jaunaren bizitoki, jauregi ta atsedem tokia «templa Spiritus Sancti» Jaungoikoaren jauregia: ofen egañi da Jesus maitia, ori egitiañen dago gure arimaren zain; gogo ori laster bete naian di-

ño «aperi mihi soror mea» zabaldu ene arima, zabaldu egistazu zure atia, zure zain, zure egafiz naiz aspaldin eta zure pekatuzko gaba biziaren izotzak ia nere

ña...? gure gaiztakerien ospiña? guregaitik esan ete dau Jesus'ek «in siti mea potaverunt me aceto» Nere egafian ospiñez asetu nabe?



JESUS'EN GORPUTZ DEUNA  
iru egunian egon zan  
**OBI AINTZATSUA**

Bere zaintzaġe Pratziskotaġi lekaideak inguruan  
dirala.

*Sepulchrum ejus gloriosum.*

(ISAIAS XI - 10.)

buruko uliak zuritu daustaz.

Kristau maite, entzun dozu Jesus'en arġena, Bere egafia zugaġn asetu nai dau eta egafi ori asetzeko, zuk... nik... zer emon dautsagu Berari? arġdau usaintzua...? ospi-

Kalbario menditik judataġarak damuz bu-laġa joten jatxi ziran, negar-damuz ba kendu daiogun orain arteko ospiġnari bere gaġ-astasuna.

M, U,

*Yosu'ren Biotz maitea,  
goi-maitasun iturria,  
gure biotzak berotzen dauzan  
maitasun laba gorria,  
Zu zara gure ilun aldian  
donoki-argi bizia.*

*Gure biotzak auldu, argalak,  
onbiderako narazak,  
galbiderako leraz beterik  
etsai aurrean argalak  
izanik, Zure Biotz bañuan  
dauñki adore ta indaia,  
Zu zaralako erbeste ontan  
gure laguntza bakaia.*

*Maitasun bila ludiraturik  
maitasunaren indarez,*

*Zure Biotza uratutea  
nai zendun buñdin gogoréz;  
bertatik urten eban suagaz  
giza-biotzak gañtzeko  
ta Zure bañu arturik danok  
zorunez poz-asetzeko.*

*Nok ez zaitu ba maiteko Yauna,  
nok ba, biotzik ba'dauko,  
zainduko ez dau oso-osoa  
eta beti Zeuretzako..?  
Zugandik iges dabilena ba,  
erukaia betiko...  
Maitasunetik igeska dabil...  
Orek..! biotzik ez dauko..!*

GABIREL

# ZER EDO ZER

## EROMARA'KO BIDEZKUNDEA

### Alaitasuna.

**A**LAITASUNA argia da, eta katolikotarok Argia'ren semeak garealako, alaitasun zaleak izan bear.

Ori baka'rean gagozanean egia izan bear ba'dau, alkariturik talde andian bilduta gagozala nai ta ezkoa da alai ego'tea. Eta Eroma'rako bidezkundean orixe gertatu zan. Poza ta iriba'rea mosu gustietan agertzen zan, eta poztasun au biotzeko poztasunaren ezaugaria zana esan bearik ez da.

Donostia'n bultzira igon gendun ezkerotik kista'r poztasuna gustion yaube egin zala dirudi, eta poz au, Yaunari eske'arak, ez zan gugandik yoan-eto'ri gustian aldendu. Alai gi'noazan ba, alai ez alaitasun zaratatsuz, alaitasun, bare, gozo eta leunaz ba'no; itz baten, alai, kista'ren alaitasunaz.

### Anaitasuna.

Alaitasuna eta anaitasuna alka'ren antzeko itzak dira, eta alka'ren anai dirala dirudi. Biotz alayan anaitasuna berez sortzen da, ba'na gure artean beste zio asko ziran anaitasun au sendotzeko. Gure buruan asmo bat geunkan, biotzean gurari bat, eta asmo eta gurari o'reik bultzatuta bultzian bildu gi'nan. Asmo ede'ra, gurari bika'na, zi'neste bat eta maitasun bat biotzean genduzala Eroma'ra gi'noazan, geure Gotzain agur'garia buru genduala. An gustion Aita dan Kisto'ren ordezkoa ikusteko, bere es-

kuan mun egiteko ta bere itz aitako'ra entzuteko gurariak biotz bateko egiten ginduzan. Aita ike'rtzen gi'noazan eta, gustiok bere seme gi'нала gogoraturik, gure biotzeko alaitasunaz, anaitasun zintso, etenbako ta samu'rak alde gustietan argi egiten eban. ¡Kista'rok *beti* olantxe alka'r maitetuko ba'gi'na!

### Bidean.

Alaitasun eta anaitasun au geure yaube zalarik, bideko neketxoak aintzat a'rtzea gogoratu be ez yakun egiten. Donostia'r begikoen agur'ai erantzuten gi'narduala, zelai ede'rak, etxe txukunak, yauregitxo politak, orlegi artean, usotxo'en antzera, geure begien au'rean agertzen ziran. Bereala Guadalupe'ko Ama Garbia'ren Eleiza polita mendi ga'nean txairo ikusten da, eta ama samu'aren antzera euskale'ri gustiko semeai zeruko bidea erakusten begitantzen yaku. Bultzia au'rea ta ikuskizun bariak.

Zelai ede'rak, ibai gardenak eta uri'nera Au'nemendiko mendi erpi'niak, euren txuntxu'rak edurez estaldurik, goruntz begira Yaunari aintza emoten eta zuriz apainduta biotz garbitasuna goiko emaitza dala adiraziaz. Onetan gustiok mendi egaleko ixoko batera begira ya'ri gi'nan. Lurdes'ko Ama gustiz garbia Bernardetxo'ri agertu yakon tokia noz agertuko pozagaz biotzak taupada zoliagoak egiten zituezan. Nozbait agertu zanean, Ama Garbiaren irudia ikustez batean, pozez txaloak yo, eta maitasu-

nez *Aguí Maria*... biotzetikoa zuzendu geuntson. Baña beste barik aurera yañaitzea ez zan egoki eta Ama Sortzez Garbiaren inguruan egun osoan gelditu giñan. Gure Yaunartze, itzaldi ta eleizkizun ederak egin, eta batez be, bakoi-tzak bere argiekaz egin gendun eleiz-inguru eder samurak gure gomutatik ez dau érez iges egingo. Axe zan biotzez *Aguí, Aguí Maria* abestutea!... Baña bideztiak giñan eta, Ama samurari lagun-tza eskatuta, Eróma bideari bañiro ekin geuntson.

### Provenza-zeaf.

Gau gustian ibili ondoren goiz abar-ean Provenza'ko lur aldeetan sartu giñan. Bereala *Mistral* olerkari bikañaren izena gomutaratu yakun. *Mireio* deritxon olerki ospetsu ta ederean, ekar eta bikainki goratu zituan luraldeetan gengozan. Euskaldunon artean *Mistral* bat noiz sortuko ete dan gogaltzen genduan artean, zelai ederak, masti ikusgarriak ordu osoetan gure begien auretik igaro ziran, Marsela'ko uri ederera eldu giñan arte. Marsela'n mendi gañetik uri au zaintzen dagon Ama Zaindarien eleiza edera ikeritu gendun, Niza'rako bultzia artu baño len.

Niza uri polita eta apaña da eta bardin Mónako ta inguruak. Itxaso urdin, barea lenen dala, Yaungoikoak edertasunik asko toki aretan erein ditu, baña gizon lurzaleak egindako gauzak azal edera bai baña bañu utsa daukela agertzen dauskue... Gure biotzak ha toki oneitan arotzak dira eta, egun osoa igarota tamal andi barik urteten dogu; ur-engo goizean Pisa'ra eltzeko. Pisa, edes-

tian uri ospetsua, gaur baña bere *Tóre makurtua, Gotzain eleiza ta Obitegia* kendu ezkeru, andiki txirotua dirudi.

### Eróma'n.

Azkenez boskarén egunean gabaz geure biotzean geunkan Eróma'ra eldu giñan. Gabaz eltzea tamala zan baña... geure gurariak asetzeko tokira eldu giñanean pozez bete giñan.

Uri edera, katolikotarontzat gomugar-iz betea, eta batez be Gure Aita Deunaren uria, eta beraz gurea be bai...

Erómatarak begiko egiten yakuz, eta —lira zaletxoak diran are— egun batsu-



### Erómara bidean

etarako lagun txararak ez dirudie. Bidez-tiei eta ibildeunari itzal andiz begiratu eta begirunez artzen dituela dakusgu.

Eróma'n gauza ikusgarriak dira, baña batez be eleiz edertasun eta ugaritasunak aritzen gaitu. Urteak egunetan baño eleiza geyago ei dagoz eta asko ta asko bata baño bestea edera goak.

Urian bertan atal bi ondo bereziak dagoz. Yainko-guzurézko eta Kisto'ren etsai ziran bakaldun atala bata. *Foro* deritxon alde gustia, *Colosseo* yolastoki

ospetsua ta abar. Obenik ikaragariena-gaz ezaindutako tokia an dago. Euren egileaz ez da inor gogoratzen, gaiztesteko izan ezik. Antxe Yolastokian ainbeste milaka kistarek euren ziñeste alde zaretako odola, nekerik ikaragarienen erdian, emon eben, eta asko leoi eta pizti gosityen aoz zatituta gelditu ziran, baña euren gorpuzkiñak gaur kistar gustiak laztantzen dabez. Jasarle etsayenakaz bariz nor gomutatzen ete da?... Kistar ziñopa martiren odola, kistar barien azia zan, eta espexetuak, birinduak, zatituak garailari urten eben. Indartsu, andiki eta etsai aro gustiak ondatuta betiko. Goiko egiaren indara neurri bakoa dala agertzen da, eta bariz

“Indararen-gain iragi dana eustazpibako etxea, udazkeneko aixe-auñeko ori legor lakoxea.”

Bigaren atala, kistaren atala, Aita Santuen atala, da. Erroma'n argiro ikusten da, zerbait garantsi dauken etxe, yauregi, eta eleiza gustietan Aita Deunaren eragipena. Aita Santu barik au gauza andirik elitzake izango. Baña Aita Santuaz, bizitasun edertasuna bazter gustietan zabalitzen da. Kisto'ren Ordezkoa lufean Bera dalako, gaur uririk ospetsu, orokor eta maitetuena da. Erroma'ko eliza gustien artean aundi eder ikusgari eta arigariena Batikano'ko eliza da, eta ain edera izan azen, Aita Santu barik arima barik lez geldituko litzake. Ez da ba aritzekoa kistar gustion guraririk biziena Aita Santua ikustea izatea.

### Aita Santua.

Lenengoz Deun K. Kanisio Deun iragariteko eleizkizunean ikusi gendun. Andikiro Eleizan sartu zan, tximisteak ikututa lez, bera ikustean, esku gustiak txalo

eta min gustiak goraltzen eben. Eta an ziran ainbeste izketako gizon eta emakumek bakoitzak berean Kisto Bere ordezkoan goraltzen gendun.

■ Auñeko egunean lenengo Aita Santua, Kepa deuna, ainbeste aldian egon zan espexe edo kartzelan egon giñan, eta gogoratuten giñan apaldua izan dana egiz eta benetan Yaungoikoak goratuten dauala. Gaur ez da munduan Aita Santuak beste itzal daben agintaririk.

Bera da Katolikotar gustion argia, berak bakarrik guzur eta naspil artean argitu geinkez, Beragandik aldentzen dana ilunpean dabil, Bera bakarrik da luidian, utzik barik, egia irakatsi leikeana. Ludian Bera da, orez gañera, katolikotar bizitzari indara, sendotasuna eta eragipena damotsona. Munduan on egiten daben gustiak, bai Gure Yaunaren irakatsiak zabalitzen, maitasunezko ekintzetan, ainbeste gorputz eta gogoko gaitz osatzeko Eleiza Amaren babespean sortu diran bazkun gustiak Aita Santuaren oneskunaz argitu ta adoreturik lan egiten dabe... Bera da gure argi, indar, eta gidaria, Kisto gure Yaunaren Ordezko bakara; beraz Kisto berberaren aginpidea daukana...

Oldozkun oneik gogoan geunkazala itxaroten gengoan gelan agertu zan, eta gure biotzetan gertatu zana ezin geinke azaldu..

Bere eskua geurean artu ta mun egin geuntson; bere itzaldi eder, ekar eta aitarra entzun gendun, eta gure biotzak pozez beterik gelditu ziran...

Gizon aretan Kisto gure Yauna ikusi gendun....

Eta bariro yoateko gurari biziagoaz «Yaungoikoak gura ba'dau urengorarte» Erroma'ri agur egin geuntson...

# GOI-ZIÑESTEA

Nařaz, ilunpean  
gizon-adimena,  
Egi egařiaz  
yoranez dabil,  
Ogioi, non zagoz?  
itaun eta itaunka  
ludi baztereri,  
baña oro ixil...

Ludi zabal dana  
aztertu ondoren  
yoranez, baita be  
itxas-barena,  
egaři biziaz  
goirantz igoten dau  
aztertu gurarik  
ortze gurena.

Laño artean lez,  
nozбайт izpien bat  
aurkitzen dau, baña  
ez dau asetzen;  
adimen iluna  
egiz asetzeko  
gai dan beste argi  
ez dau aurkitzen.

Ekin eta ekin,  
nekearen-nekez,  
argitasun zerbait  
ikusten ba'dau,  
argi onen bidez  
auxe dakus argi:  
«Eskutapen utsak  
inguratzen nau».

¡Au bai dala lořa!  
¡Au bai atsegea!  
Ikusi gura ta  
ezin ikusi...!  
Gizon adimena  
len lez ilun eta  
orain ez ezauna  
edonon daurki...!

Len uste ba eban  
zerbait ekiala,  
oin ez dakiala  
ezerbe dazau;  
ta bere barura  
at ez daurkiana,  
bilatzeko asmoz,  
begiratzen dau...

Antxe txoko baten  
txingi eder-eder  
zoragařiaren  
dis-disa dakus;  
eřaņu biziak  
zuzentzen gautegun  
bere aberi dan  
goi-donokiruntz.

*Eta Argiaren  
Aitan Arpegitik  
Sortutako emaitz  
bardingabea,  
ezagutzen dala  
bere biotzean  
aurkitu daun txingi  
zoragařia.*

Argi onen bidez,  
oro dazau argi,  
uraturik bere  
adin iluna,  
ta bere biotza  
pozez asetzen da,  
aurkitu daulako  
zorun-zoruna.

Zer zara Argi ori  
ni poz asetzeko?  
Zein zure izena,  
neu-ongilea...?  
«Yaunaren Argi naz  
orontzat beařa,  
ta neure izena:  
*Goi-Ziñistea.*

GABIREL



# EUSKALDUN MIXIOLARI 'OSPATSU BAT

Otsala'ren 15'n. il zan Karmeldarak Indietan dauken belguntzan, Irukoitzasun Deun-deunaren, Domingo aba. Sarasua zan bere abizena, eta 1854'ko Azila'ko 24'n. Markiña-Etxebari'n yayoa. Belgundari bikaña, yakitun gitxilakoa, eta euskaldun eredia, Indietan 42 urte ziñestebakoak argituten egin dituan lan eta alegiñen saria emoteko Yaunak beraganatu dau.

Markiña 'ko karmeldaren lekaretxean sartu zaneko, adimen zoli, eta biotz edefaz ganera, langiletasun andia agertu eban. Alan ba bere azkartasuna ikusirik laster Yaungoikoizti edo *teologia* irakasteko autu eben. Baña Yaungoikoak bere lantegia beste toki baten gertatu eutson, eta urte batsuk irakasle egin ondoren 1883'n Indietara misiolari yoan zan. Lenengo 21 urteak Kilon'go belguntzan emon zituan, eta beste 21 Verapoly'n. Yoan bafitan eleiza baten ardurea emon eutsen txauburu lanak egiteko. Baña laster Ikastetxe nagosira deituta eroan eben. Irakasle goren goa zan, eta yakidi gustietarako gaitasun andikoa eta beaf be bai irakasleak ain ur ziralako, *berak bakarik* sei urtean, Pilosopi, Teologi, Edesti, Eleiz - Legedi eta Zilegizti edo morala, egokiro azaldu zituan ba. Adimen gustiz aghi eta neuribako lankortasunae defto agertu eba. la onetantxe bakarik be ikusi geinke. Kilon'go belguntzan egin zituan lanak zenbatzeko idaztiak bearko litzakez, baña

zerbait somau geinkez ainbeste zeregin, arazo astun eta beaf latz bere auñean ikusirik, Sarasua'taf Domeka lango belgundari trebe eta biotz andidun, neuribakoak, go-goak Yaungoiboaganatzeko egingo zituan alegiñak.

Kilon'en 21 urte egin ondoren Verapoly'ra Bikario provincial izateko aldotu zan eta azkenengo sasi urteetan, Bikario General edo Orokoñaren arazo astunak bere gañean dituala, il arteraño lanean iraun dau. Domeka abak, gustia ekien, gustia irakurten eban, eta lagunak esaten eben lez, Domeka aba alboan euki ezkerero Efo-ma ur-egoan....


Onulari bikaña zalako Osi Perdiñando agurgariak esan oi eban: «Domeka aba laguntzat euki ezkerero, Txina naiz Aprika'ko edozein tokitara gotzain yoango nintzake». Alan da be Sarasua'taf Domeka aba gotzain ez zan izan, baña Goa'ko Patriarka'k 1900'n ezagutu ebanean esan eban: «Domeka aba lenago ezagutu ba'neu, gaur Goa'ko gotzain izango zan».

Izkuntzetan yakitun-yakituna zan batez be ingalanderaz edefto ekien. Orain urte batsuk erlejiño ta bere gopatzaren aldeko eztabaida bat euki eban eta ain egokiro idazten ebalako, yosulaun irlandar batek euren aldizkingian idatzi eban. «India gustian ez zala izparingi ez aldizkingirik aba Domeka abaren idazki edefak argitaltzea merezi ebanik».

Bere idazkiak «Sarasua» abizenaz izenpetzen zituan. Oñez gañera gizon zuzen eta zufari zegokion lez, bere amaren altsoan ikasitako euskereaz ez zan aztu, eztagitxia-gorik be, izkuntza bafiak ikasteko, *berea* burutik atara beaf zanik ez eban uste eta

«Nik zeuk legez euskeraz itz-egiten yakin gura neuke». Ori 18 urte Indian egin ondoren!

Gure anai euskaldun ospetsu au, yakin-tsu eta on-ona zanez, deunen eriotzaz Ernakulan'en il zan. Andik Verapoly'ra ekafi



IRUTASUN DEUN - DEUNAREN DOMEKA ABA  
KARMEÐAR OSPATSUA

† 1925'ko Otsala 15'an.

au egiztatzeko ara zerzelada bat. Oin 24 urte Europa'ra osterata bat egin eban, eta Karmen egunez Markiña'ko itzaldia agindu eutsen. Ainbeste urtean bere efitik ufin bizi izan afen, ain edefto egin ebalako, bertoko yaupalburu zan Erzila yaunak irakastegitik yatsi zanean esan eutson:

eben eta andikiro il-otoyak egin eutsezan Gongotzafiak mesa emon eta eleizkizunen buru zala.

Euskaldun bikain, lekaide yakitun eta belgundari goragafi onen gomutaz, izpar-ok argitaltzea egoki deritxogu. (G. B.)

**GAMA.**

# ZIÑESMENA

---

Emen dabilen ibil beara,  
Emen dabilen nastea,  
Naste dabiltzaz ona ta txara  
Eta deuna ta deungea;  
Nastaurik ainbat izketa, ezin  
Aitu da bata-beste.  
¡Bigaren Babel al da gaur emen  
Ene Jaungoiko maitea!

Babel ontako aspalditxuko.  
Ziñesmenaren iluna,  
Ziñesmen onek dirudiala  
Eguzki bako eguna.  
¡Au da egunen motela eta  
Au da gogoan ifuna!  
Isio, Jauna, ziñestargia  
Bea-bearen doguna.

Gau iluneko bidestia da  
Ziñesmen bako gogoa,  
Iretargian argitakoa  
Ziñesmen bizi bakoa.  
¡¡O jaunen Jauna!! ¡¡O alen Ala!!  
Ekazu oso sendoa,  
Eta eguzki gorria baizen  
Argia eta beroa.

Ziñestuten dot ziñestuteko  
Uzkuřtzak diñon gustia  
Eta ziñeste onetan nai dot  
Amaitu neure aldia,  
Amai ořetan eukizu, Jauna,  
Nigaz eruki andia  
Nire sendi ta euzko ta... danak  
Zeure aintzean aulkia,

# Z E R E D O Z E R

## Izpař Pozgafiak.

Protestantetařen eleiza zerenak yanda-ko zugatzaren antzera, noz ondatuko dagola eurak autořtzen daben gauza da. Eta Yaungoikoari eskeřak, iřoiz itxi beař ezeben Ama Eleiza Katolikotařera biuřtzeko gurariak, eurak igafi barik lez, ager-tzen dabez. Protestantetařen ikasle on eta trebeenak Eřoma'ra begiratzen azi dirala egunoro dakusgu. Ara, *Dagen* Noruega'ko izpařingí protestante batek oraintsu beste gauza batsuen artean esaten eban: «Protestantetar Eleiza'ren eriotzea» irakuřburutzat ebalá. «Gure eleizan bertan (luterotařetan) yakiřez gařera, yakiteke ala erdi yakiřean, katolikotař egiteko aizeak bultzatzen gaituala gauza argia da». Ori Eřoma'n giřala oařtu genduna da. Eskandinabia aldetik 428 bidezti Aita Santuagana etofi ziran, eta eurotatik 130 inguru protestantetařak, eta autořtzen ebe-nez Aita Santua Ikusi eta Eleiz katoliko-tařa ezagutzeko asmoz etofi ziran, eta Urte au amařtu bařo len geyago be etofi-ko ziralá uste eben. Ara 400 urte onetan ikusi ez dan yazokuna. Ořek agertzen dau protestantetařen eleiza ařakalazten azita dagola. Eta izan be alantxe beař. Protestantetařak buru barik, eta euren burutatik dabiz eta sen baten ezin iraun. Lenegotatik euren ziřnestean aldakuntzak sartzen azi ziran, eta *Bossuet* yakintsuak edeřto esan eutsen: «Zu aldatu egiten zara, eta Egia aldakofa ez da». Eta egiztu-teko «Protestanteen aldakuntzen edestia» idatzi eban.

Eta beste barik biurtze batsuen baři emon daigun.

## Sigrid Undset.

Auxe da oraintsu Katolikotař biurtu dan

dinamarkatař emakumearen izena. Protes-tantetařak euki daben idazlerik onena eta oleřkaririk bikařnetarikoa ondiřo ile gi-txi dirala, katolikotař eleizatxo baten pro-  
testantetařen ziřnestea ezetsi eta katoliko-tařena ařtu eban. Aro Erdiko edestia ikas-ten ziarduala, bere lateřia katolikotař era-gipenez andia izan zala oařtu eban. Eta apuřka apuřka Yaunaren eskařak biotzean ikutu eutson, eta Eleiz Ama katolikotařak pozez beterik alaba baři au bere besoetan ařtu dau. Oin be irakuřgayak idazteari ekiten dautso, bařa beste gogo bategaz, eta bere gurari bizia oleřki ta irakuřgai bidez ziřnesteko egia zabaltzea da. Orain-tsu iru ataldun irakuřgaya «Kristin Lav-ransdatter» deritxona argitaldu dau, eta ondiřo 43 urte bakařik dituz eta egia-ren alde laz asko egingo dauala uste dogu.

## René Joseph Villatte.

Bagiřaren 1'go egunean artu eban Elei-za Amak, «suizatař katoliko zařak» izen-tzat ařtuta bizi diranen arteko au. Paris'tařa 1853'n yayoa eta Ipař Amerika'n ur-te askotan bizi izan dana. Konbes, Elei-zaren etsai amofatuak emon zituan lege galgafiak ziralá-ta, lan asko egin eban Vil-latte yaunak, *kultuales* zeritxoen bazkun-ak ziralá katolikotařak Eřoma'ren men-petasunetik ataratzeko. Bařa orain, Yaun-ari eskeřak, egiaren argia ikusi dau. Orain urte bi Prantzia'ra etofi eta bakartadean oařtu dau, beař-beařekoa dala Aita San-tuaren Irakasletza bakař eta utzeziřa, be-ragandik aldendu ezkeru egizko kistař-tasunik ez dagolako, eta bere menpean yarteko erabagi txalogafiá ařtu dau.

Eta erabagi ori betetako, Zerretti Doi-

puruaren Ordeleri Paris'en danaren aurrean, orain arteko egite ta irakatsi gustiak ezetsi eta katolikotaf zinestea autortu dau.

Erabagi onek katolikotafen biotzak pozez bete dituala esan beafik ez dago.

### **Payson Weston.**

Oñezko ibiltari ospetsuenetariko onek ibili ta ibili bide zuzenera yo dau.

Ezpai barik esan leike, ludian oñez geyen ibil dana, berau izan dala. Bere bizitzan 160.000 kilometro ibili da. Ondiño 84 urtedun zala, 77 egunean 792 kilometro ibili zan. Ba, ibiltari onek ibili ta ibili zerurako bidea aurkitu dau. Ipar Amerika'n ain ospetsu izan dan ibiltari au ointsu katolikotaf eginda.

Berak oindiño ibiltea gura leuke, eta esaten ei dau beñola Ingalandan 8.000 kilometro, ugorkerien aurka zabalkundea egiten, ibili zan lez, oin Egia zabaltzen ibiliko litzakela... Baña... 88 urte lepoan dituala atzo, goxeko mutila ez da ta...

### **Beste on-biurtze bat Terese deunaren biartez.**

Karmeldafan mixio-aldezko aldizkingian irakuri dogu: Emakume eskondu bat atsekabez beterik bizi zala, bere senara gustiz zinesgea zalako. Oneratzeko alegin andiak egin ondoren, azkenengo bide lez, Teresetxo deunari bera deun egiten eben egunean eskatzea erabagi eban. Eleizkizunerako txartel bat nekez baño ezpazan be lortu eban, eta antxe eztu-eztu sei orduan zutinik egon zan. Bere atsekabeen deun bafari otoi auxe egin eutson: «Teresetxo: Ala gaur ala iñoz be ez dau ondu beaf nire senafak. Orixe eskef ori lortu egidazu, besterik ez dautut eskatzen-eta». Etxetik urten ebanean goizeko iruretan, saspri urte inguruko bere semeari esan eutson; donekundeko eleizkizunera yoyala

bere aitaren aldez otoi egiten eta berak be eskef ori eskatzeko.

Mutikoak, bere aita zinesgeari ikastetxera laguntzeko eskatu eutson. Aita semetxoagaz yoan zan. Umeak eleizatxora eroan eban eta astia emoten lez, bere alde otoi-egiten inarduan.

Emazteak diñonez, eskaria egiten egola baruko ikara bat lez somau eban, eta bere otoyala entzuna izan zala, ezaugaritzat artu eban.

Eta izan be igauza arigafia! dirudienez une atan bertan obendariak bapatean otso izatetik bildots eginda, bere txikiari esan eutson: «Ene seme, autortzen banezik ointxe bertan autortuko nintzake». Umeak eleiz liburu txikia erakutsiaz, autortzeko otoyak erakutsi eutsozan, eta bereala gertau ta antxe autortu zan. Oben-nekea bete eta etxera biurtu ziranean, laster eldu zan emaztea, eta bere gurariak osoro bete zirala ikusi eban eta somau geinke artuko eban poza.

### **Amaltzeko,**

Askok uste izaten dabe, katolikotafan zinestea gizajo ta kokolo zamafentzat dala, eta zerbait dirala uste daben *intelectual* antzekoak goitik bera lez, begiratzen daukue, eta begien aurrean dakusguna da, gizon eta emakume zintso, yakintsu adoretso eta onenak goiz edo belu gure zinesterera etofen dirala.

Beste askoren artean, or daukaguz ondiño bizi diran idazlerik bikañenak: Yorgensen, Papini ta Chesterton Dinamarca, Itali ta Ingalanda'ko onenatarikoak, eta orain Sigrid Undset, idazle gurena, eta Payson Weston izena gogoratu ezkerotxantxetan-benetan baña egiz esan geinke bururik onenak eta ankarik onendunak ibili ta ibili gure artera etofen dirala eta kokoloak etorten ez diranak dirala....

# ¡LOYOLA!

---

*Nik dazaut erlategi bat  
erla zoliz betea,  
nik dazaut erlategi bat  
erlamiño gabea.*

*Gautegun aspertu barik  
lanari ekiñagaz,  
etxea betetzen dauna  
ezti gozo-gozoaz.*

*Yaunmaitasun bikañenak  
damotso lora-iriña  
eiten daben eztiak  
non aurkitu bardiña?*

*Ekandu argi biziaz  
argitzen dauz gogoak,  
donokitar eztiagaz  
gozotzen dauz biotzak.*

*Nik dazaut erlategi bat  
erla zoliz betea,  
¡Loyola! erlategi au  
erlamiño gabea! GABIREL,*



# ZER EDO ZER

## Egin beara bete ta...

### *Egin beara ta gizona*

Bearkun edo eginbeara baño gizonarentzat gauza onuratsuagorik eta era batera gogoragorik ez dago. Gogoragorik ez, ainbeste maite daben azkatasuna gizonak bere lokaripean ipiñi bea dabelako, eta lokari au apuritzen ba'dau iñoz be zigor barik gelditzen ez dalako. Eta orez gañera eginbearak gizona bere arokeriko galuretik eratsi, ta bere mañan ipinten dau, norbait bere gañetik dagola autortu eragiten dautso-ta.

Eta bearkun edo eginbeara baño gizonarentzat gauza onuratsuagorik be ez dago. Lenen aberekeritik, eginbeara beteta bakañik aldendu leitekkelako, eta bigaren, gizonak egari biziz bilatu gura daben biotzeko gentza, bakea, eginbeara beteta *bakañik* idoroten dalako. Eta bake au zorionaren eustazpi dala esan bearik ez dago.

Gizonak bere eginbeara betetan daben neuriz zorioneko izango da, eta eginbeara bete ezik, bere tokitik urtendako azuren antzera artogatuko da.

Bultziarentzat (trena) burdinbidea da-

na, gizonaren bidea bearkuna da, eta burdinbidetik aldentuten dan trenak azken onik izan ezin leiken lez, bearkunetik aldentzen dan gizonak bez...

### *Maitasuna ta bildura.*

Gizonarentzat bearkuna betetea ain onuratsua dalarik, zerbait maite izaten dau, baña maitasun orek saritan berekoikerian sustrai sakontxoak eukiten ditualako, albait gitxien beteta, onura geyen atarateko alegin gustiak egiten ditu. Maite dau bearkuna, esku zabalekoa dalako; ta bildura dautso, gogor zamaña dalako. Eta gizonaren *gizatasuna* neurtzeko au baño bide oberik ez da. Bearkuna betetea *beareko* dala-ta maite dabena, *gizatasunaren* gorengo mañan dagola esan geinke; bearkuna, beste urteyerarik ez daukolako *bakañik* betetzen dabena, *gizatasun berengo mañara* yausten da. Eta au negargari da baña, gaur egunean ugari dabil, eta Yaungoikoaren Legeaikasi ez dabenen artean bakañik ez, ikasi dabenen artean be bai, aintzat artzen ez dabelako. Eta ¡yakiña! zori ona-

rein ordez, naspil eta zoritxaia. Gustiak nai dituez eginbeaia betetatik datorkiguzan onurak, baia egin beaia bete barik. Nekerik artu gura ez dabenen soloan, sastraka laia ugari, baia garirik ez... Eta ori aldi gustietako gaitza izan da gitxi asko; baia

### *Gure aldiko gaitza*

berariz dala dirudi. Gaur gauzak zuzentzeko bakoitzak bere eginbeaia bete bear dabela, ori gustiak esango dautzue, eta ofetarako gertu yagotzuz eurak diñoenez, baia... baia lenen... bestek azi deitezela...

Agintariek menpekoei euren eginbeaia betetako agintzen dautse, ostean ez dala bakerik; menpekoak osteria orixe erantzuten dautso, bakea gura ba'dau ondo agintzen ikasi dayela, zuzentasunez eta orduan... Ugazabak oingo langilekaz gauza onik ezin leikela egin, lan gitxi eta irabazi asko gura dabela-ta; langileak osteria orain arte laiegi egin dabela-ta, astoizaten aspertuta dagozalako, *alpeiak* ondo ibili daitezzen ez dabela bearik egin gura erantzungo dautse, eta lan egingo dabela baia, besterik ezin dabentean, eta albait gitxien, eta orain euren txandea eldu dalata bardintasunaren izenean gustiak nagosi izan bear dabela, naiz ta ofetarako gauzak goikoz bera ipini... ¿Ori ezin leikena dala? Etxeak iraungo ba'dau ari gustiak goi aldean ezin leikezala ipini? Eustazpian batsuk estalduta be egon bear dabela?—Dana dala, naiz ta telak eustazpian ipini, beinfzat geu goyan yafiko gara erantzungo dabe. Ori tentelkeri utsa da, baia gaur zoro-etxeetan baio andiangoak non nai entzuten dira-ta

Lendik ez daunak, Beste barik be  
gogaldu nozbait, yakin lei dala  
ludi ontako zabal dan zoro  
nastea, etxea.

Beti auzoak erua eta bearkuna bete dayela... eta geu

### *Beti auzora begira.*

Eta auzora begira aldia igarotea, norbere bearkunari lepoa emotea ez ete dogu oartzten? Norbere etxea atondu ta zuzendu bearean, auzoa zuzentzen alegintzen danak, bata be ez dau egingo. Au eri, sendi gizon bakoitzean argi ikustenda. Auzora zorion bila doyanak ez dau idoroko, eta bearkuna bete ezik etxean bez. Zuzentasun barik ez da zorionik eta zuzentasunak norberagandik asi gaitzala eskatzen dasku. Ostean

### *Pipea espanean eta pipe bila*

ibiltea izango litzake. Bake ta zoriona bakoitzak norbere bearkunak betetzean aurkitu leike eta aurkitu bear dau. Eta beste gustian bete aren norberak betetzen ezpaditu, ezin leike zorionik euki, eta berak ondo bete eskero, beste inok bete ez aren be, zoriona inork ez dautso kenduko.

Gure bearkuna betetan alegindu ba, bakoitzak kristianu lez bere bizibidean daukazanak eta *Yaungoiko - Zale*'ko bazkide gareanez, daukaguzan eginbeaiaz be ez gaitzezan astu, lan onurako oneri zintzoro ekitea geuretzat eta geideentzat zorion bidea izan leiteke ta... Ekin ba *Kristianu Ikasbidea* ondo irakasten... eta bestek ez dirala alegintzen-da, ez geure bearkuna laga... Al dogun ginoan auxe egin daigun, ara

### *Eredu bikaia.*

Yazokun au urte asko dala Van Trich abaren idazti baten irakuri gendun.



Bretaña'ko baseñi baten txauburu zara il agiñean zegoan. Mundu ontatik urteteko orduaren zain egoala, Yaungoikoaz aspaldi aztuta bizi zan eleiztar bat bera lez ilteko zorian egoala, esan eutsoen.

Bere lagun bati yoateko agindu eutsen: Gexo ikusi eban, baña ezer egin barik biurtu zan.

Orduan txauburu (pañoko) zarañ esan eban: «¡A, neure Yaungoikoa! zoaz bañiro eta esan egiozu, bein itz emon eustala Yaungoikoaz aizkidetu barik ez zala ilgo.»

Abade laguna bañiro yoan eta agindua bete eban. Baña gexoak erantzun eutsen: «Nik itza berari emon neutson; eta ixekaz, burlaz bañiro yauparia bialdu eban.

Txauburu gogozaleak, esku begiak goiruntz yasota, berarizko adorez esan eban: Bañarta edo oetxo bat ekañi dayela. Bere esana negarez bete eban: Aspian bigungarñia ipiñi, txauburu gaxoa gañean yañi, ta estaldu ebeneañ esan eban: «Goazen bizkor».

Eta neguko gaba baltz eta ilunean argi bat aurfian ebela bide luze ta lakañ-zeañ, aixe otzez inguratuta, ilten zegoan abadea eroan eban.

Eleiztar gaiztoaren gelan oetxo sartu zanean, eta agure gexo argala bera ikusten etori zala oartu, oyan erdi zutin-duta esan eutsen: —O zetan zatoz ona? —Zeu zeruratzen—erantzun eutsen txauburuak.

Oetxoan gexoaren oe ondoan ipiñi eban, eta gexo biak bakañik gelditu ziran. Etxekoak bañiro sartu ziranean biak negarez aurkitu ebezan. Txauburu onak azkenez gexo onetsi eban: «Gero arte—esan eutsen—zerurarte».

Bañiro oetxodunak etxebidea gaba baltzaren erdian artu eban. Bidean aizeak ori artean ataraten eban zurumuru, eta bideko ariarte ataraten eban otsa baño ez zan entzuten.

Etxera eldu ziranean, oetxoaren estalkia yaso eban, eta txauburu zintzoaren gorputza len baño zurbilago egoan eta zirkiñik ez eban egin: bidean ekañela, bere gogoak gorputza itxi eta zerura egaz egin eban...

Oñenbeste be ez yaku eskatzen eta Yaungoikoa lagun dogula «Ekin eta yañai».

# ¿NORA\_ZOAZ?

---

Zegaitik zabiz gizon gaxoa  
atsegiñaren ondoren?  
Aberastasun, andikeriak,  
zegaitik zabiz biñatzen?  
Ez dakizu ba zure biotza  
iñoz be ez dala asetzen?  
Zegaitik zabiz ba zoriona  
ez dan tokian aurkitzen..?



Ero ero ba ez izateko  
ez egon bera begira;  
gora sentzunak eta biotza  
sañi sañi donokira.  
Antxe bakañik idoro leike.  
zure biotzak zoruna,  
antxe betiko, Yaungoikoagaz  
atsegin gozotasuna. GABIREL

# ZER EDO ZER

*Bizkaya Begoña'ko Amaren oñetan:*

Gaur asten dogun amabostaroan egun andi bat izango dogu Bizkaya'n, euskaldun gustioentzat gozoa ta gomutagaña dan jazoera bat ospatuten dogula. Ogetabost urte bete dira gure Begoña'ko Ama maiteari bureztun edo koroe eder bat, uré-bitxiz apaindua, Aita Santuaren Ordezkoak ipiñi eutsonetik. Eta jazoera pozgañi au ezin geinkean gomutau ta ospatu bagarik itxi euskaldunok.

Begoña'n daukagu Bizkai'ko semeak gure biotza; gure Ama, gure bitarteko ta laguntzale samuñaren jargoí edo tronua antxe dago-ta. Begoña'ra doaz gure begiak eta gure gogoa estutasun eta premiña gustietan, laguntasuna ta osakaya aurkituko dogun uste osoaz, Begoña'ra garoez geure pozaldiak be Maitasun-Edeñaren Ama'ri eskeñak emotera.

Amaikatxo bidar, gizaldirik gizal-di, mila urte baño geyago onetan, gure asaba zañak igo izan dira

Artagan murura, oneraspen sutsua-gaz: semea uríñetan daukan ama arduratsua, itxasoan galdu-gordean ibilita Begoña'ko Amaren laguntasunagaz liorera eldu diran mariñelak, gexo kadenduak, obenezko uyole-tan, urten ezinda, ondatu agiñian ebiltzanak, gustiak aurkitu izan da-be erukia ta laguntasuna erukitasunaren Ama Begoñakuagan. Jakiñak eta ezagunak dira Ama maite onek Bizkaitařen alde egin dituzan mirariak batez be Bilbo'n izuñi ta uriol-aldietan.

1900'gafen urteko Irala'ren 8'an, Bizkai'ko seme zintzoen gurariak betetako, Aita Santuaren ordezkoak koroe edeña Begoña'ko gure Amari ipiñi eutsan. Orduko eleizkizun eta jayak ikusgañiak izan ziran, baita iru urte geroago egin ziran bidez-kunde edo peregrinaziñoak be.

Arezkero otzitu ete da Bizkaya'n Ama Begoñakoa 'ganako zaletasun antxiñako ori? Ez dakit zer eran-tzun; baña Obispo jaunak egun gomutafi aren gomutaz egingo diran jayak iragartean diñosku *bariztu biar*

*dogula gure artean bizkaitar on gustiak Begoña'ko Amari antxiñatik izan dautsen zaletasun eta erazpen sendo ta ustetsua.*

Irala'ren 8'an izan zuten koroe ipintea; baña egun ori toki askotan lan-eguna izanik, jai osoa ez da-ta, asko ta asko ezin yoan izango litzakezalako Begoñara egun oñetan, Ufila'ren 11'garñenera aldatu dau Goztain jaun agurgariak 25'garñen urteufeneko eleizkizun andia.

Guazen al dogun gustiok eta berotu daiguzan gure biotzak Ama maite auganako zaletasun eta oner-aspén beroagaz gure aúfetikoen zínnesmen eta oitura onai jañaitzeko.

*Koru'ko Andre Mariaren ikastola.*

Ete da gure irakurlen artean ikastola ori nun dan ez dakianik? Ba guk esango dautsogu Donostia'n aspaldiko urteetan ezaguna dala izen oñegaz ikastola eder bat Zubigain kale'an. Gure bazkide dan Muñoa'tar Mikel jaunak irasi edo fundau eban, bera izan da luzaroan irakaslia be, orain beste irakasle batzuk ditu bere babespean, gure bazkide Lafea'tar Nikasi, apaiza, buru dala.

Ikastola oñetan *egunez* mutiltxo gasteak artzen ditue ta zelako aziera ona emoten yaken igafi leike ara doazan mutiltxoai ipinten yakezan egin bear onetatik.

Ikastetxeko mutiltxoak beartuta daude:

1.º goizero, jai ta aste, 8'tan ikastetxeko Eli-zatxoan meza entzutera.

2. goizeko 9'tan eta afatsaldeko ordu bit'er-di'tan ikastolara etortzera.

3. Igande, jai egunetan eta berariz egingo diran elizkizunetan izatera.

Zuzen eta garaiz etortzen ez diranen beri beren guraso ta arduradunei emango zaie; ta ori zergatik izan ote dan erantzutera beartuta daude.

Baña gaur batez be gure irakurliei adierazo ta iragafi gura dautseguna mutil azientzako *gabeko* ikastetxea da.

Ara zer diñoan Zuzendariak bialdu daukun oñitxo batek:

«Jakiñik ainbeste euskeldun Donosti'ra efietatik datoztela, batzuek bertan bizitzera, besteak luzaroko eginkizun baterako, ta emen gelditzen dirala zer-nola egin ez dakitela; adirazten da:

Mutil azientzat (amasei urtetik gorra dituztenentzat) datoñen ilaren 15'etik auñera, asiko dala ikasketa, eta Donostia'rai bezela berai ere deitzen zayotela ikastera.

Ara emen erakutsiko diran gayak: *Lenengo mañan*. Irakurketa, idazketa eta zenbakiztia (Aritmetica).

*Bigarñen mañan*. Zenbakiztia, Daneurtzia (Geometria) eta leño-mañazketa (dibujo lineal).

Guzientzat Jaungoiko-gauzak, oitura onai ta azierari dagozkietenak.

Ez dago batere ordaindu beafik.

Emen sartu nai diranak, Ufila'ren 1'tik etoñi ditezke izenak ematera «Koruko Andre Maria'ren Ikastetxera» Zubigain-kale 2 (Campanario 2).

Gero bere eskuz auxe idatzi dauku: Zuek onera norbait bialdu diguzutela jakitea asko izango da guk bera emen pozik artzeko».

Badakie ba gure irakurleak, euren efiko mutilen bat Donostia'n badago, gastigau beyoe yoan daitela ikastola oñetara. On asko egingo dautse ta biar bada gaitz andietatik aldenduko ditue.

Olako ikastolak eñi askotan, batez be uri nagosietan, bear litzakez.

## EGIA

*Egia garatza  
dala, diñostazu?  
Gozotutea be  
Zeuregan daukazu.  
Egi garatzik ba  
ez dago ludian  
artzen ba'dakizu  
gogoz biotzean.*

## NAIGABEAK

*Naigabe latzak  
ba'dau saritan  
zure biotza  
zulatzen,  
Yakin lantzeke  
ez daula luñak  
igali onik  
emoten.*

GABIREL.

# Andik eta Emendik

---

*Eroma'ra oñez. Otxandio'tar bat be bai!*

Urte Deuna dala-ta urñetatik Eroma'ra oñez yoan diranak banaka-banaka ainbat dira. Oraintsu *Osservatore Romano*'k diñonez Berlin'etik Eroma'ra oñez gazte bi eldu dira. Berlin'etik Eromara 1500 kilometro dagoz, eta gazte bikañok, bagilaren 26'n urten eta 80 egunean Eroma'ra eldu dira. An aste bete igaro, nekazka irabazi eta Aita Santuaren onespina artuta bañiro biurtu dira.

Baña txapeldun otxandiotar bikain bat izan dala esan geinke. Maidagan'dar Ermenegildo 62 urte lepoan dituan *gaztea*, Eroma'ra bidezkundea oñez egiten asartu da, eta egin be bai. Bere osteran 100 egun igaro ditu, Korpusti egunean etxetik urtenda. Gure txalorik beroenak, kristiñau zintso eta euskaldun sendo oneri, ikasbide bikaña emon dabelako.

*Katolikotar gaztediaren Batzaña Eroma'n.*

Oraintsu ospatu da Eroma'n katolikotar gaztediaren batzar orokoña. 22 lateñitatik 5.000 ordelari bildu dira eta esan bearik be ez da, egindako batzarak eta artutako erabagiak, gaztetasunaren poz

eta adorez betetakoak izan dirala. Aita Santuak egin eutsen itzaldi ederean eurakandik Eleizak asko itxaroten dabela esan dautse. Eta alantxe gertatuko dala uste geinke.

Urango batzar orokoña 1927'n Lourdes'en egitea erabagi dabe

*Ipar Amerika'ko izparak.*

Lateri batzan (Estados Unidos) bakañik 23.697 abade dagoz, 60.155 lekaide-lekaime (pñale ta monja), 208 lekaidetxe 598 emakumeenak; 216 abadetxe, ikastetxe nagosi eta gazteen ikastetxe; 607 neskatilenak; 611 goragoko malakoak; 559 erietxe eta 264 izparingi ta egunoroko. Neska ta mutikotxuentzat ikastolak parokitan aña. Arek mutilak dira lanean, batez be gura aldean!

*Olanda'ko katolikotarak.*

Yaunari eskerak urteokaz auferapide andia egin dabe, ikastolen auferapidetik ikusi geinkenez.

1916'n 1.057 ikastola, 6.280 irakasle ta 218071 ikasle eukiezan eta orain onexek daukiez: 1.803 ikastola; 9.713 irakasle; ta 325.086 ikasle. Urte gitxitan auferapide andia egin dabe ba.

*Asis'tar Prantzisko deunaren aintzaz.*

Datořen urtean, bere eriotza zoruntsuaren 700'gn. urtea dalako, bere aintzaz yayak ospatzeko zabalkunde batzordea lanean asi da. Batzorde onetan idazle ospetsuak eta oraintzu oneratũak bai dira; euron artean Chesterton, Papiñi, eta aspaldi biurtua, Prantzisko-zale, eta idazle bikain Jorgensen.

Beintzat oingandik dakigu Laterano'ko Eleiza aũreko zelayan, Prantzizko deunaren irudi andi bat ipiñiko dabela. Konpostela'n berberori egiteko asmotan dabiltz.

Eta Mussolini'k ointxegandik iragañi dau, datořen urtean, Asistař Prantzisko'ren eguna Italia gustian yaitzat artũko dala.

*Kirolzaleak eleiza baři bat.*

Ingalandako kirol-zale scouts, eta ibiltari katolikoak asmo bikaña artũ dabe.

Eleiza baři bat egitea. Kolligs abak lenengo ařia onetsi eban eta eleiza Sebastian eta Pankrase deunei opaldua izango da. Yaunari eskerak ango gazteak pelotoyaz ta zerbait geitxoagoaz gogoratzen dira. Emengoak bařiz... burutzat *pelotoya* ez daukanak, *pelotoi* bařuan burua daukala esan lei... Aınbesteraño be!...


*Izpař gařantzitsu bat.*

1924'ko Garagařila'ren 1'tik 1925'ko Bagila'ren 24'rate, España'n tabakořitan eralgi dana auxe da: *420 miłoi 507 miłe eta 522 lauerleko*; ori dirutza gustiori ketan yoan da eta aixeak eroan dau, eta alan da gusti oin ezin leitekela bizi esaten dabenak ugari dira. Ez ba, ketan da *ketan* gastetan dana, bear diran gauzetan eralgiko balitz... ogia merkeago eta sentzuna ugariago euki-ko geunke...

**M'tař G.**



Gure egunetan kristau gurasoen lanbide nagusiena da semeak Jaungoikoaren itzalpean aztea, gero kristau onak izan daitezen. Ořetarako lanik beařena, nagusiena, lenena da: etxean gazte-gaztetandik semeai dotriña erakustea. Beragatik ots egin nai diet bertatik apaiz jaun agurgafiari, estu ta zořotz gurasoak gai onetan artũ ditzaten, egin bear nagusi au bear beze-la bete dezaten (ARGI DONEA).



# ZER EDO ZER

## *Lotsea ta gizabidea*

**G**AUZA begiko ta maitagaría dala ezin geinke ukatu, eta lotsabakokeria lotsa apur bat daukanentzat gauza iguingaríia dala be argi agertzen da.

Lotsea bañiz gizarítean beař beařekoa da, lotsabakokeria zabaltzen dan neufiz gizaríteak abere-píla antza artzen dau-ta. Ofixe dala-ta lotsea gizabide edo zibiliza-ziñoaren lagun kutuna da. Eta lotsa gitxi-ago ta gizabide gitxiago. Lotseari indařa emotea ba, gizabideari indařa emotea da, eta lotsabakokeriari indařa emotea abere-keria zabaltzea izan beař.

## *Lotsea ta sentzuna.*

Lotsea adimendunak bakařik euki leike, eta lotsabakokeria abereen gauza dalako, adimenez zuzen dabilena lotsabako ezin leiteke izan. Auxe dala-ta gizonak adimen arauari yaramon gitxiago, eta lotsabako-keri geyago agertzen dau, eta adimen arau ez dabilenak sentzuna galtzen dabelako, lotsea galtzen dabenak sentzuna be galdu egiten dau.

Lotsea ba sentsunaren aizkide begikoa

da, eta lotsabakokeria sentsunaren etsairik andiena.

Eta gauza tamalgaría da baña, lotsea-gaz, sentsunaz gertatzen dana gertatzen da. Eřeza dala galtzen eta oso gatxa bilatzen. Auxe da gauza bat askok galdu ta iñok bilatzen ez dabena. Galtzen dan lotsea bilatzekoa balitz, uste dot tximinien kedařea baño eřez eta ugariago bilatuko geunkela bazteřetan.

Eta ořek adirazten dausku lotsabakoke-ria zabal dabilela eta beraz gure aldi one-tan sentzuna be *kiebra* egin agiñean aurkitzen dala...

## *Ezaugarí txara.*

Lotsabakokeria, bedař txara lez gaur-koa bakařik ez da. Toki ta aldi gustietan zerbait izan da. Eta ez da ařitzekoa, gizo-na adimenduna izan ařen, abere arauz ibil-tzera girñak bultzatzen dabelako.

Gaitzik txarena ez da lotsabakokeria zabal ibiltea, *lotsabakokeria lotsa barik* zabal ibiltea baño.

Auxe da ezaugarí txara. Lenago lotsa-bakokeria, ařitzeko gauza izan ařen, zer-bait *lotsortxo* zan, gaur lotsa barik nař



-non arpegia agertzen dau, eta onek dakarzan kalteak Yaungoikoak bakarik dakiz. Au egiztuteko begiak zabaltzea naiko dala uste dot.

### *Lotsabako izateko eskubidea*

*Lotseak bakarik* dauko. Au da, lotsea, lotsabako izatea ona da, eta beaf-bearekoa be bai, eta edozein tokitan burua yasoia agertu leiteke, eta oretarako eskubidea dauko, eta ori egiteko azkatasuna daben artean, efi ta sendiak ondo dabilzala esan geinke. Baña *lotsea lotsatzen* asten danean, burua eskutau ezinik dabilenean... arpegiz arpegi agertzen asatzen ez danean... aberekeria nausi dala esan geinke. Eta zoritxarez toki askotan orixe gertatzen da. Gaur askok uste daben baño abere antzeko geyago dago anka bikoen artean. Naizta guantez apainduta ibili, edo sedaz erdi yantzita aberekeria estaltzen alegindu. Ba *aberekeriak* askok uste daben baño anaitasun geyago dauko *aberatzkeria-gaz*.

### *Lotsabakokeria nagosi!*

Bai, orixe da gaur efi askotako ugazaba. Irakufgayak dirala, zinea dala, biraoa dala, dantza zikiñak dirala, yantzi nabarmenak dirala, oitura txarrik, ibai zikiña lez, efiarik efi zabaltzen dira eta biotzik zintsoenak, ekandurik onenak ondatzeko arisuan ipinten ditu. Eta efi en zintsoasuna ta garbitasuna aintzat aitzeko gauza ezpaltz lez, agintari askok oitura zatafari indara emoten dautse.

*Gizon* agertzen nonbait lotsatu egiten dira-ta, euren menpeko efi *zibilizauta* dagola adirazten emoteko, gaberdirañoko

dantza nastuak eraltzen dabez, eta izpaingietan iragarten ez dira lotsatu be egiten! Euren gurasoak iobietatik urtengo ba'lebe... lotsatuta bafiro eskutauko litzakez!...

Ori katolikotzat euren burua egiten dabenak!... Ziñestebakoak ba'lira zer egin-go ete leukie?...

Eta efi a zabaltzen yakon bidetik geyenez ibiltzen da ta ura doyan bidetik afañak.

Eta... len moskoftiak etxeratzen ziran orduan, ondiño dantza nastuan yaraitzen dabe etxe onetako neskatilak; pormaltzat euki ezik asafatuko litzakezak. Eurentzako ba pormal izate ofi!

Eta bardin gertatzen da, yantzi nabarmenakaz be. Ainbeste bider Aita Santu, Gotzain eta eleiz gizonak gai onetzaz kristiñauen bearikuna azaldu areñ, askok yaramonik ez dabe egiten eta kalean, naiz eleizan, lotsabarik yantzita agertzen dira. Yakiñez ganera ori egiten dabenak (eta askok egiten dabe) lotsa barik yantzita ba'dabil... yantziaren antzekoa da, naiz domiñak paparean eroan...

### *Onen aurka ordua da*

bakoitza bere malan yartzeko, Yaungoikoari argi bat eta beste bat deabruari ipinten ibili barik...

Kristiñau dana kristiñau lez, guraso on dana on lez eta... Maria'ren alaba dana Maria'ren alaba lez, ez Eleizan aufenen eta dantzan aufenen ibilita...

Ala izan ala ez izan, baña izatekotan alegindu beintzat eta gogo ona agertu kristiñau zintso izateko; erdiz-erdizko efenak etsayei bafe eragiteko baño ez dira izaten eta...

# GOIRUNTZ BEGIRA...


---

Gizonen biotza  
yoran-yoranez,  
beti zorun bila  
beti saminez.  
Zorun egafia  
ezin aseta,  
beti artega ta  
nekez beteta.

Aberastasunak  
ez dau asetzen,  
omen, atsegiñak  
ez dau poztuten.  
Laster igarten dau  
ludi zoruntza  
besterik ez dala:  
"Uskeri utsa".



Bizitzan zoruna  
loritu nai dozu?..  
Goiruntz biotz ori  
yaso egizu...



Eta zorun barik  
ezin da bizi:  
zorunak eskutik  
igesi beti,  
ikusirik, norantz  
yaso biotza  
zerbait poztuteko  
ludi bizitza?

Zorion gustien  
bide garbia,  
Goitik datorkigun  
Argi bizia,  
Berau, maitasunaz,  
bide bakara  
ufintzen dauskuna  
gau-zoritxara.



# ZER EDO ZER

Saí askotan idazlia, atal onetarako gai egokirik ez dala-ta, zeri jardun ez dakiala aurkitu izan da. Uskurtzaz edo Euskeriaz, gure maitagarí bi onetzaz, jazopen bizi-biziak, egunekoak, irakurliai iragaíri, elaztu ta atzaldu biar ta iñondik baírik ez, eguzkiaren bean. ¡Bai dala loía idazle gixaxoarena! Mai aúfian yesaíri, idazkortza eskuan artu, ingi zuria aúfian ta leío bat idatzi ezin. Gogamenak alde, uíutizkiña ixílik, adiskideak mutu, ta gure mutíla *zer edo zer* bíla alde gustietara begira; baña... iñondik *ezer* ez. Idazle gixaxoari ordu laíri bat igaro azoteko gizarte gustia alkartu dala esan leike. Gustia dago geldí, gustia ixílik gustia lo, ta idazlia be loak artu biar.

Baña gaur bai-daukogu izpar bizi-bizi bat, oingoxea ta ganera idazlien gogoak biztu ta alaitutekoa.

Napaíoa'tik dator berau. Ara emen ango izpafingi batetik euskeralduta:

«Napaíoaan bazkun bat irasten da EUSKERAREN ADISKIDEAK deituko dana.

Bazkun au uíengo araupean iñarduko da.

Arauk: 1.<sup>o</sup> Bazkun aonen asmoa jakintza-lantze utsa da ta politika bakoa, polítikako alderdiakaz zer-ikusirik ez daukana, alan be España'ren aurka dirianakaz.

2. Bazkun onetan bazkide izan leitekez Napaítaí gustiak edo, Napaítaí izan ez da be, Napaíoaan bizi diranak.

3. Bazkun onen Artezkariak saspi bazkide izango díra; eta eurak eurenartetik autuko dabez lendakaria, idazkaria ta díru-zaña.

4. Bazkideak ugaritu daitezanian, emakumien talde berezia egingo da, arau onen bean Artezkaritzari laguntzen iñarduko dana.

5. Bazkun onen asmoa batez be (Artezkariak egokienak deritxoen

bidietatik) euskeria irakatz, iraun-azo, landu ta zabaltzia da.

6. Antziñako ekandu on, yolas eta kirolak berbiztuten aleginduko da, batez be eresi, abesti, dantza ta pelota kirola.

7. Lenengo arauaren aurka dagien bazkideak bazkunatik atara egingo dira.

ZUZENTZA TA IÑARKERA: Bazkun-Artezkari-tza urte birik baten erdi bañiztuko da, Artezkari bañiak lengoen autarkiz aututa.

Bazkideak urtian sei lauerleko, gixienez, emongo dabe euspidetzat; zatika iru-ilabeterik iru-ilabetera okaniko da, baña nai dabenak urte gustikoa batera, aurretiaz ordaindu al izango dau. Dirutzeta zetan sautu dan aztertzeko ta Artezkaritzari asmoak aurkezteko eskubidea eukiko dabe gustiak.

Bazkide urgazleak be izango dira, naiz notiñak naiz Udal eta beste bazkunak.

Beste batzuk izango dira bazkide lankideak. Ez dabe ezer ordaindu bial, bai baña bizi diran efi aldietan Artezkariak aginduko dautsen lana egingo dabe, batez be Bazkunak eralduko dauzan urteroko jayetan.

Bazkuna banatuko ba'litz bere txinditza ta ogasun gustia Aldundi edo Diputaziñoari emon biarko yako, euskera alde, berak detxon eraz, sautu dagian.

Bazkun-etxea Lendakariaren etxea bera da. Iruña 1925 Urila 20'an».

Ikusten danez, Napañoak lan edera egiteko oin-afia ipiñi dau bazkun onegaz, eta napartañak ondo erantzuten ba-dabe, ta erantzungo dabela uste dogu, laster ikusiko dira bere arnari ederañak.

Napañoak ez dau euskeria galdu gura; ibañetik mendira iges eginda, ozta bizi bada, bere adiskide onek ekafiko dabe bañiro ibañera ta sendo, lerden, gaztetuta biziko yaku.

Napartañen egipen au ez ete da beste batzuentzako ikasbide izango? Bizkayak eta Gipuzkoak ez ete dau biar onelako ekiñik? Emen egia da ez dala galdu an bestian euskeria; baña galduaz doala edozeñek ikusi leiken gauzea da, ta euskaldunak zabartu ta ajolagabetzen badira, galbidean gero ta auñerago yoango dala esateko, iragarlea izan beañik ez ez dago.

Zuzpertz beitez emengo Euskeriaren Adiskideak eta alkartuta lanari ekin beioe. Euskerak adiskike asko dauko, bai Bizkayan eta bai Gipuzkoa'n; ez da besterik bear eurok batu alkar-itundu ta lanean astea baño, ta bardin Araban.

Jaungoiko-Zalekuok euskeriaren adiskide-adiskideak gara. Beraz gure laguntasuna lan ofetarako biar bada, oparo ta gogo onez emongo dogu.

# Andik eta Emendik

## *Bankeruen erlej ñoa?*

Prantzia'ko buru zala, buru andi baño gogo txar andiagoa agertzen ebalarik, Heriot'ek esandako itz tentenlok zalaparta atara eben. Kirtenkeri oferi erantzuteko ildakoak be naiko dira.

Oraintsu il da Bégin kardenal eta Kebek'eko goi-gotzaña, Kanada'ko gotzain-buru izan dana, eta esate baterako txuriko bat ez dau ilburukoan itxi.

Ondiño urte onetan il zan Konpostela'ko gongotzaña, eta begira bere ilburukoan ipiñi zitu-tuan itzak: «Nik dirurik bape ez daukat, eta neure senideak dakien lez zoñez beterik nago. Eta zofoz ordaintzeko, neure idaztiak, eleiz yantziak eta neure gauzak saltzeko agintzen dot». Gotzain agur'gari biok, euken gustia efuki egintzetan eralginten eben.

Orain urte bi inguru il zan Loge Irlanda'ko kardenal ospetsuaren ilburukoa be onein antzekoa izan zan.

Uste dogu len aitatu dogun Heriot ofek bere ilburukoan txurikorik ez dabela itxiko *bankeruen* ain etsai andia dan ezkeru. ¿Ez deritxozu irakurle? ¡Aldiak esango dau!

## *Oneratze bat.*

Gerketañ orthodoxe deritxoenen artean zaf-tada andia egin dau, Pilipe Morosoff katolikotañ egiteak. Vilna'ko abade ikastetxeko buru eta artximandrita edo leka'detxe buru izan da. Eta biurtze onetan bakara ez da izan, bere yaraitza-leak izan ditu, menpekoen artean. Vilna'ko gongotzañari (artzobispo) bialdu dautson idazkian auxe diñotso: «Konstantinopoli, eta Kanturbery'ra Ortodoxoen Eleiza'k egi bila ez dau yoan bea, egia Efoma'n eta Efoma'n bakarik aurkitu leike». ¡Edefto esana!...

## *Baltzen aldez.*

Ipaf Amerikako, Lateri Batzan amaikatik ama-

bi miñaira baltz dagoz. Eurotatik 250.000 katolikotañak dira.

Safitan geure margo edo koloredunak ez diranakaz aitzu egiten gara ta, an be zurien ardureak baltzaz aitzuta ipiñi ditu, ta gixajo onein aldez ekiteko Kramer Abak lan gogofean diardu. abade ta kristiñau lauen biotzak baltzen alderuntz be biurtzeko. Izan be batsuetan gustiok, baltz eta zuri, Yaungoikoaren semeak gareala aitzuta bizi gareala esan leikelako, Kramer abaren asmoa txalogaña da benetan.

## *Asmo edeña.*

Italia'n Basegone deritxon mendian 2.000 metro goyan kurutze andi bat ipiñi dabe. Milan'go Arzobispo Tosi kardenalak oraintsu onetsi dau, italiko katolikotañ zintsoen alegiñez, mendi garai aretan ipiñi daben kurutze edeña.

## *Euskeraz be bai!*

Aurtemin, Jinebra'ko uri ospetsuan bildu ziran lateri gustietatik elduta osagiñe asko, umeen aldez erabagi batzuk artzeko asmoaz.

Batzañ onetan itzaldi askon ondoren, «Jinebra'ko azalpen» izenaz, umearen eskubideen azalpen bat efi gustietako gizon eta emakumeen izenean idatzi dabe. Eta azalpen ori 38 izketara biurtuta idaztitxo baten argitaldutea erabagi eben. Eta orain beste lau izketara biurtuta argitalduko dabe. Beraz 42 izketetan.

Geitu dautsezan izketak onexek dira: provenzaleraz, flamenkeraz, katalaneraz eta... *Euskeraz*... Eta euskeraz ipinteko eskatu dauana ez da euskalduna izan...

Ikasbide edeña bertoko yakitun usaindun izan afen, kirten xamafak diranentzat, norbere elea bartzertzen dabena orixe da ta.

# ZER EDO ZER

*Kristiñau Ikasbidearen etsayak.*

**E**LEIZAREN etsayak beti Kristiñau ikasbideari guda gogofa egin dautse, baña bera ondatzeko gauñ añã alegin gitxitan oartu da. Gaur lan kaltegarì onetarako bide gustiak arñu dituez. Orain arte batez be itzaldi, izparingi ta idazti bidez alegindu dira, baña gauñ sustafera yo dabe. Yaungoikoaren izena, ume gaxoen biotzean berez lez sortzen dana, ito egin gura dabe, edo obeto esateko ontasun eta gizabide gustien ituñi danaren izena umeen biotzetan sarñu ez daiten alegintzen, dira. Asmo baltza, gaiztakeri gustien ituñburu, gizabide gustia ondutzen dabena, gaiztokitañen asmoa baña agirian eta osoan ala erdizka eta ixilik auxe da liberalkeriaren irakatsi kaltegarìak arautzat daukezanen asmoa.

*Oñetarako biderik lauena.*

Auxe da:

Ikastola gustiak gobernuaren eskuetan ipintia.

Nai ta nai ez eskola oñetara umeak bialdu eragitea.

Eta ikastola oñeitan Kristiñau Ikasbiderik ez erakustea.

Yaungoikoa, al ba'lebe, gizartetik kentzeko biderik egokiena orixe dala esan leike. Eta izan be gaurko umeen yaube egiten dana biarko gizañteen yaube egiten dala esan lei. Eta oñegaitik Prantzian eta beste toki askotan be, Eleizaren etsayak lenen eskatzen dabena auxe da: Ikastola bakaña. Nai ta nai ezkoa. Eta Yaungoiko bakoa.

Olantxe umetxoen biotzak, eguzki bako landaratxoan antzera, auldu, tximuñtu eta usteldu egin gura dituez. Gaiztakeri andiagorik asmau ete leike?...

Eta ez aiztu oñek azkatasuna eskatzen beti dabiltzala.

*Eskubide gustien aurka.*

Goyen aitatu ditugun etsayen asmo galgarìok, eskubide gustien aurka dirala esan beañik ez dauku.

Ikastola gustiak eskuratzeko eskubiderik iñongo agintarik, ez daukolako.

Nai ta nai ez ikastolara umeak bialdu eragitea, gurasoak euren umeetaz daukezan eskubide agirìak austen ditualako. Eta ori bide zuzenez ezin leikena da.

Eta Yaungoiko bako umeen aziera, izate-lege, Yaungoikoaren lege, eta Eleiz-lege eta sentsunen aurkakoa dalako. Gaurkoz geyago eztiñogu onetzaz, astiro ta garbi xamar itz egiteko asmoa daukogu-ta.

### *Emen ofetaraño ez dira eldu.*

Baña eltzeko lan egiten dabenak asko dira, eta gogotsu lan egin be, katolikotaf-ök lotan gagozan artean. Irakasle askotxo agertzen dira, geroago ta geyago, Kristiñau-ikasbidea aintzat artu gura ez dabenak, edo ardura gitxigaz artzen dabenak, eta orixe dala-ta, urte batsuk eskolan ibili ondoren umeak, dotriñan baraurik urteten dabenak ezagutzen dituguz. Eta euskal eñietan bariz, eurak tutik ez dakien izketan erakutsi ezker, zer gertatuko dan esan bialik ez da, baten baño safiagotan esan dogu-ta. Onetzaz bafiro itz egiteko erea etorten dan artean, yakin beyo goiko ta beko, guraso ta ez diranak: «Eleizaren gogo, gotzañen agindua, eta gogo-zaletasunak eskatzen dabena, bakotzari bere izketan, eta «Euskaldunei euskeraz» kristiñau ikasbidea irakatsi beaf yakola. Eta Yaungoikoaren legeen aurka inoz besterik ezin leikela emon... (1)

### *Safitan baña,*

Gurasoen tentelkeriz - eta euskerazko ikasbideari aitzaki asko ipinten yakoz. Baña ipinten yakozan aitzaki gustiei, *oin 170 urte inguru Aita Kardaberaz*'ek erantzun eutsen. Eta edefito erantzun be. Ara bere itzak, idazkera bakañik aldatuta:

«Ofegaitik deabruak bere guzufarekin asko engañatzen ditu, baita obligaziño geyena dutenak ere; eta beren erausiakin, uste duten baño kalte geyago animetan

egiten dute. Batak dio, Euskerazko Dotriña edo liburuak ezin irakufi edo aditu dituela; besteak Euskera Algarabia; gregeria, girigai edo naspila madarikatua dala. ¡Ah, dontsu txoroak eta deabru txarak ondo efaz efaz itxutuak! Oriek gezufak, ametsak, edo aitzakiak dira. Euskera bedeinkatua, Jaungoikoaren bendizioz eta efegalioz betea da. Euskera berez txit nasgabe, edo garbia, argia ta bizia da. ¡O Euskaldunak ala ba'lira! Zenbat ere diran beste izkera edo lengoajeak, bati ere ezer zor eztio. Euskera gustiak bezin edefa da, eta beste asko baño edefagoa ta efezagoa ikasten, itz egiten eta irakurten da».

«Aufak eta besteak gogotik asi eta aire galantean ikasten dute. Juizioa duenak, eta Jaungoikoarekiko egia esan nai duenak; besterik ezin esango du.

Txikitan zuk eta guziok ikasi gendun Dotriña berbera kartilan irakurten da. Besteak irakufi edo predikatuaz, zuk guzia aditzen dezu. Lotsagarizko gauza da zuk ez irakurtea; gogo ba'zendu, irakurten efaz da. Ainbeste denporan, urte askotako Misioetan Bizkayan, Napañoan, Araba'n eta emen guk predikatu deguna berbera liburuetan ematen da; au egi klaroa da. Baña asko beren maitasunean itsuak daude; ofela bizi ta iltzen dira; eta juizio gabe, gezuf ofetan egiaren munduan, edo Jaunaren aufean Juizioan aurkitzen dira. Jaungoikoak itsu oyek argi ditzala; eta beste Kristau; Ministro eta Maisu jui-ziozkoak bezela, an anima askoren salbaziorako konsejo obeak artu, eta emateko diela bere grazia. Amen.» (1)

(1) *Ondo iltzen ikasteko, eta ondo iltzen laguntzeko ejerzizioak, ondo il nai dutenak, eta ondo iltzen lagundu nai duten Jaungoikoaren ministroai Jesusen Konpañiako Aita Agustin Kardaberaz'ek eskintzen diztenak.* (Safera IV-V) Tolosan 1951'gañen urtean.

(1) Ikusi onetzaz *Jesus'en Biotzaren Deya'n* idazki edefa. Uñila 1925.

Aita Kardaberaz'en itzok gaurko tentelkeriei erantzuteko aukerakoak dira. Orduan be. ba'ziran nonbait, beda'f txa'fa aldi gustietakoa da-ta.

*Au garbi egonaren,*

ondiño norbaitek bere leloakin ya'faituko ba'leu, *Moratin* erdal ole'rkariak idatzitako itzok belafian esango geuskioz; eta berak idatzi zituan izketan:

Pobre Gerencio a mi ver  
tu locura es singular,  
quien te mete a censurar  
lo que no sabes leer.

Amaikatxo Gerenzio'ri ederto etofiko  
litzakioz itz oneik...

**GAMA.**



# LAPUR ETA MARTIRI

**L**XU-YUNG gizon andi ta argala, A-lin-tong'oa zan yatoriz. Lapurétan egin da bizi zan, eta lapur talde bategaz ebiñala, mixiolari bat ezagutu eban, eta apurka-apurka, bide onera ekañi eta kristiñau egin zan.

Bere bizikera gaiztoa itxi eta lapurki-deetatik aldendurik, batiatu ondoren lagunak oneratzen alegintzen zan.

Egun baten bere lenagoko lapur lagun bat, auzoko uri batera sartu zan eta ezaguturik, ixilean deitu eutson. Lapurak *negosio* aundi bat egiteko euken asma agertu eutson, eta berari eskatu be bai, eurak ostuten ebena, banantea egin aurretik gordeta eukiteko.

Kristiñau zintsoak iribañez erantzun eutson:

Ene lagun zaña; len ni ziñesgea nintsoan eta ez neunkan ezertarako *eskurpulturik*. Baña oin kristiñau nok neure ziñesteak iñori ezer ostutea debekatzen yok.—Askozaz obeto, erantzun eutson lapurak, geuretzat geyago geldituko yakuk. Eure laguntasun beara yaukoguk, eta beintzat gorde egingo dauskuk, ori alko dot eta.

Lapur izandakoak zintsotasunaz eta adoretu erantzun eutson:—Nik orixe be ezin ñeinkek egin kristiñauon ziñesteak gaiztakerian lagun izatea be galerazo egiten yauskuk eta...

Ba, ori gora-bera lagundu egin bearko dauskuk, eure beañizanean gayagozak-eta. Eta esanaz batera bere antxiñako lagunari pistolea bulañean ipiñi eutson.

Kristiñau bariak ez eban zirkiñik egin. Ben eta arategatzeke erantun eutson: Il naik gura ba-dot, baña nik ez daustat lagunduko...

—Eure azkenengo erantzuna dok?...

—Bai, neure erabagi sendoa dok, neure ziñestearen indañez eta bere aintzaz artu yoadana.

—Ba, azkenengoa izango dok, eta izkiluaren giltzari sakatu eutson, eta kristiñau zintsoa, bulañean zaurituta ilda



**Abadiño:** Muntxaraz etxe-toñea. (Foto Ajubita)

yausi zan. Eta A-lin-ton'go luña ziñoparen odolaz lenengoz busti zan.

Onangoxe kristiñauak nai litzakez ugari....!

**G.**

# NOR AZ I....?

*Burua tente afo-aforik  
goitik begira danari,  
norbait ikusten dodanean nik  
diñotsot: nor az, nor az i....?*

*Zer uste dok ik zerbait azala  
ondasundun azalako?  
Yayotzean zer ekañi eindun?  
Iltzean zer eroango....?*

*Agintzeduna ete az gero?  
Zer ustok baña gaxoa?  
Begitu egik bizitz amayan  
nora yausten dan afoa.*

*Eure burua yakitun etsi  
ta zer azala uste dok?  
Yakitunenen adimena be  
txinparta baño ezpa-dok?*

*Zer dala-ta ba puztuten az i?  
Zer dala-ta iñor ezetsi?  
Eure gustia ontzat emonda  
besteren dana txafetsi....?*

*Arotu adi baña nai ba'dok  
eriotzan eukokanaz...  
Orduan... afo ez az izango  
gustiz apal izango az.....*

GABIREL

# Andik eta Emendik

## *Aita Santuaren Gogo-ina*

Aita Santuak eta Batikano'n bizi diran bere ingurukoak urtero Dagoniñan gogo-ina (ejertzizioak) egiten dituez. Baña aurten, Urte Deuna dala-ta, ia eten barik, eldu diran bidezkundek azirik ez dautselako emon, atzeratu beaŕean aurkitu dira. Eta Aita Santuak erabagi dau Aziñaren 29'tik Lotaziñaren 5'ra egitea. Yosulaun bik azalduko dautsez.

Egun oneitan Aita Santua ezin ikusi al izango dabe, eta bidezkunde zuzendariak gogoan euki dayen, Batikano'tik alantxe iragaŕi dabe.

## *Lovina'ko Ikastetxe Nagosia*

Beljika'ko katolikotafak zerbaitegaitik aŕotu al ba'leitekez, Lovaina'ko Katoliko - Ikastetxe Nagosiatzaz aŕotu leitekez. Gustiok dakigu guda galgaŕian bere idaztitegi eder ta gusti zuzituta gelditu zala.

Egunokaz sasaki urte bete dira guda galgaŕia amaitu zala eta pozez dakusgu, len baño indaŕtsu eta mardulago agertzen dala. Au ufengo zerbaki oneitan ikusi geinke:

1924-1925 ikastaroan Lovaina'n izan dira 150 irakasle; 3412 ikasle 39 lateŕitatik bertara ikasten etoŕiak. Ikastetxe onetan bertan Zaragüeta yaunak 1910'n argitaldu eban idaztiñoak diñonez 2300 ikasle eta 120 irakasle ziran eta orduan urte bakoitzean 1.200.000 lauerleko gastatzen ziran. Eta ikasleen ikastaro sariaz eta katolikotafaren esku zabalez dana ornitzen eban.

Ikastetxe onek 90 urte dituz eta bertoko irakasleak egindako lana ikusteko zertzelada auxenaiko da: Lenengo 75 urteetan bertako irakasleak argitaldu dituezan idaztien izenakaz, 600 orialdetik gora dituan idazti bat argitaldu da. Eta urten daben gizon argien artean Merzier yanzkordun yakintsuaren izena naiko da.

Ikastetxe arazoetan parantzeko katolikotafak be ez ziran lo egon. Legeak azkatasuna emon ebaneko Ikastetxe nagosi katolikotafak irakasten asi ziran. Eta ainbeste on egin eta gizon yakintsu emon daben ikastetxe ospetsuak ointxe euren 50'n urteuŕena ospatzen dabe. Aziñan 4'n Lyon'goak, 24'n Paris'ko ospetsuak eta Lotaziñaren 1'n Angers'koak, eta datoŕen urtean To-

lousse'koak, Gustietan Yai andiak egingo dira Paris'koan batez be.

Ziñeste ta yakidia aizkide ez dirala esaten dabenentzat ori lako erantzunik ez da.

Emen... iraskateko azkatasuna auzoan, eta geu onenak gareala *pentsau* ezkeroko konpromete... Eibaŕtafak esaten daben lez, *abozinauak* gaituk...

## *1926ko Eukaristi Batzaŕa*

Datoŕen urtean Txikago'n egingo dan Eukaristi Batzaŕa orain arte ikusi ez dan lako izango dala esan leike. Beste gauza ikusgaŕi ta ederen artean, mesa bat izango da 50.000 umeak abestuta. «Angelis» deritxona izango da ta benetan aingeruena izango dala uste dogu.

Ainbeste ume gertatzeko lenengo Txikago'n dagozan 220 paŕoki-ikastoletan ikasi ta gero danak batera zelai andi baten Otto Singerberger txaueskandari ospetsua buru dala abestuko dabe. Eta gauza polita 50.000 umeok zuriz yantzita eleizkizunera yoango dira.

## *Fotx gudaŕburuak Parantziko Zaindariari.*

*Fotx* gudaŕburua gustiok dakigu katolikotaf zintso-zintsoa dala, eta berau izan zala alemandafak garaitu zituana be.

Ba, guda andia amaitu eta bakeak egin ziran egin-egiñean be Aziñaren 11'an orain sasaki urte, eta egun au Parantziko Zaindari Martin deunaren eguna da.

Egun ofen gomuta andirik an zebizenak ezeulen beaŕ ba'da, baña Yaungoikoak gizona darabil eta zaindariaren egunean parantzitafak garailari urten eban.

Egun onetzaz ez zan *Fotx* gudaŕburu zintsoa aztu, eta deun andi oneri bere eskaŕ ona agertzeko, deunaren ilobian atxurdinezko apaingafi bat ipiñi eban idazkun onegaz:

*A Saint Martin*

*Foch, marechal de France*

*11 novembre 1918.*

Orixe da gizon eta kristiñau izatea!

**M'faf G.**

# ZER EDO ZER

## *Gurasoak eta irakaskintza*

**I**A gizaldi ta erdi da, Danton naspiltzale ankefak, itz oneik esan zituala; «Semeak, gurasoenak baño lenago Lateñi edo Estaduarenak dira». Beraz gurasoai baño lenago, umeen aziera ta irakaskintza, Lateñiari dagokio. Gaur asko dira, batez be eleizaren aurkako alderdietan eta zerbait euren gofotoa eztaltzen dabenen artean, orixe berori, era batez edo bestez, irakasten dabena. Eta Europa lateñi askok irakatsi galgafi ofeik egi ba' lira lez euren legeak emoten dituez.

Eta txañena da, entzunen entzunaz, edo zabal ikusten danaz, ia kirtenkeri ofei iguin barik begiratzen dautsenak, geure artean be aurkitzea. Egoki deritxogu ba, labur-labur katoliko-irakaskintzak gai onetzaz, azaltzea.

Umeen aziera eta irakaskintzan Lateñiak ze eskubide daukon yakiteko, gai ofetan gurasoak daukiezan eskubideak azaltzea naiko izango da. Gurasoei dagokiena ikusiaz, Lateñiari ez dagokiona ikusiko dogu.

## *Gizonaren eskubideak.*

Yesukristo Gure Yauna ludira etofi aurretik gizonak eskubiderik ez eukala esan leike. Gustiak Lateñiaren aurfan burua makuftu beaf izaten eben, gizona gizon izateafen ez eben aintzat artzen, aberastasun, aginpide edo beste gaitasun batsuri begiratuta baño. Gure Yaunak ba, gizona Yaungoikoaren seme dala eta Bere aurfan gustiok bardiñak giñala irakatsi euskunean, egizko anaitasunaz gañera, gizona goratu eta bere izatez egon beaf dabena malara yaso eban. Gure Yaunak ba, gizonen egizko eskubideak azaldu zituana, XVIII'n gizaldiko gixontxoei baipeñnik eskatu barik!..

Ordutik ona ogei gizaldi igaro dira, eta batsuntzat esan leike bat be ez dala igaro, ordukoxe ziniñste bakoen irakaskintza guzufeñkoa, gauza bafi bat lez irakasten diardue-ta.

Eta guzur ofeitatik bat auxe da: Lateñia eskubide gustien itufburu lez, ia yaungoikotzat lez artzea. Eta iyakiña! ori olan izan ezkeri, Lateñiaren aurfan ez da bakoitzaren eta sendiaren eskubiderik, berak zuria, baltza dala esaten ba'dausku be,

gustiok amen egin, burua makuñtu ta ixildu... eta irakaskintza arasoetan be bai.

Baña egia beti izango da egi, naiz gustiak bere aurka yañi. Eta gai onetzaz egi garbia auxe da.

### *Gurasoen eskubideak:*

Sentzunak eta zinesteak irakasten dauku, semeak Yaungoikoaren ufengo gurasoenak dirala. Ara itz bitan egiztuta.

Gizonak berenez, gizon yayo dalako bakañik, asiera ta irakaskintzarako eskubidea dauko, ba gorputz-osotasunerako beañ dabean yanarira eskubidea daukon lez, adimen-biotzen osotasunerako, eta beañ dan bidetik zuzentzeko, irakaskintza ta aziera aitzeko eskubidea dauko. Eta au bere *izatez* dagokio, au da Yaungoikoaren legez.

Eta esan beañik be ez da osotasun au, berenez, izatea emon dautsenen eskubide ta beañkuna dala. Ba Yaungoikoak umeari berari dagokion osotasunera eltzeko eskubideaz batera, gurasoei ipiñi eutsen, gorputzarentzat yateko ta abañ emoteko *eskubide* ta *eginbeaña*, eta baita euren adimena egiaz argitu eta biotza aziera bidez zuzentzeko *eskubide* ta *eginbeaña* be.

Yaungoikoaren gurariz ba, gurasoei guraso izatetik datorkioez, azi ta irakasteko eskubideok, eta euri dagokie Eleizaren zuzentzapean, aziera eta irakaskintza emotea. Eta eurak barik eta euren aurka, naiz yakituri geyago euki, iñok ez dauko eskubiderik.

### *Gauzarik edereña,*

eta egokiena, al izan ezkerro, gurasoak eurak ardura ori artzea izango litzake, baño biziteko lan egin bear dabelako ala beste zio asko dirala bide, besteen eskuetan euren umeak ipiñi beañean aurkitzen

dira, euren *ordez* eta *aginduz*, umeai aziera ta irakaskintza emoteko. Irakasleak auxe beti gogoan ba'leukie jeurak gurasoen ordelari batsuk baño ez dirala!... Beraz irakasle izateko gauza bi beañ ditu: *gaitasuna* eta *aginpidea*; *gaitasuna* yakiteak emongo dautso, eta *aginpidea*, daukanak emon beañ, eta ori gurasoak daukien gauza da.

Eta irakasleen arasoen aztuntasuna ortixek sortzen da; beraz erantzupen andiko ardurea daukiela ez dira aztuta bizi beañ.

### *Agirian dago ba,*

Irakasleak (maixuak) gurasoen *laguntzaleak* eta euren ordelariak dirala, eta gurasoak eukiko leukien ardureagaz, umeen aziera ta irakaskintzari begiratu beañ dautsela, añtu dabean araso aztuna ondo beteko ba'dabe.

Au onan dalarik, ikastetxeak idigi ta irakasleak aututeko eskubidea norena izan leiteke gurasoena izan ezik? Nok beañtu ete leikez au edo beste eskolara bialtzen, gurasoi Yaungoikoak emondako eskubideak ostikopetu barik? Gauza ona dakianak ez dakianari irakastea nok galeraso ete leikio?

Beraz iñok bez eta Lateñiak be ez dauko *eskubiderik* ikastola bakaña ipiñi eta besteai zabaltzea galerazteko. Eta alan da be auferapenen izenean bide ofetara Lateñi geyenak makuñtu gura dituez etsayak. Ori be nonbait gure gizaldiko azkatasunen izenean izango da!... Lateñiak egin beañ dabena da eñztasunak emon gurasoei, bialkuna betetako eta azkatasuna, irakasleak aukeratzeko.

**GAMA.**



# ¿BARDINTASUNA?

---

*Bardintasun-zaleak  
gauza gustietan,  
asko azaltzen dira  
non nai bañiketan.  
Baña batsuk andiak,  
bestetsuk txikiak,  
asko argalak eta  
ez gitxi lodiak;  
naiko alper nagi ta  
baita burugiñak,  
yakitun banaka bat  
asko ez yakiñak;  
batsuk zintso zuzenak  
asko etxe kaltez,  
ikusten ba'ditugu*

*non nai eta aurrez;  
Zelan izan leitekez  
gustiak bardiñak,  
izanik gauz geyenak  
orontzat eziñak?  
Bost atzamar artean  
ez dago bardiñik,  
ez da be bardiñik bi  
ludian gizonik!...  
Eta alan da gusti  
«¡bai! ¡bardintasuna!...»  
orúaz diardunak;  
non dauko sentzuna?...*

GABIREL

# Andik eta Emendik

## *Egiaren indara*

andia da-ta azpaldi askotxo dira, batez be protestanteartetik, gure artera etofi diranak. Bein baño safiagotan izpar pozgafiok emon izan doguz, eta gauz be izen txortatxo bat, L'Osservatore'tik artuta ipiñiko dogu.

Oraintsu Katolikotaf egin diranak onexek dira:

Ingalanda'n, Raymond Asquith anderea, Asquith gobernuko nausi izandakoen efeña.

Suezia'n, Lovenskiol emakumea, Suezia'ko sendi andikiartekoa; bere aita Oskar II'n efegen gelako nausi izan zan. Onex protestantetaf ziñeskintza itxi, eta Katolikotafena artu Efoma'n bertan, Pompili kardenalaren afean, egin eban.

Noruega'n, Sigrid Undset, emakumea, idazlerik bikañenatarikoa ipaf aldean.

Amerika'n, Dzubaij efusitaf gotzain zismatikoa izan dana, eta Pilipiñetan Katlin protestantetaf abadea.

Indietan katoliko bateoa artu dau, d'Ananth Chaslu, efege sendiko emakume alargunak.

Efoma'n bertan katoliko ziñestea artu dau. Arthur Muvroij Dale'k, Ladbrokeko protestantaf abadeak. Au Molling'go lekai me beneditařen yaupari izandakoa da, 1918'n lekai me gustiak katolikotaf egin ziran arte.

Ingalanda'n baita Rouse protestante artzai edo abadea, oso ezaguna spiritismoatzaz idatzi dabengaitik, gure ziñestera etofi da. Bere afeetik iru seme katoliko egin yakozan.

Orain bost urte Hatfield'en irasi zan etxe bat, katolikotaf egiten ziran abade protestanteak, egizko abadetzarako gertatzeko, eta «Karlus deunaren Etxe» onetan 57'raño dagoz gertatzen.

Ferguson, ingalanda' osagile ospatsua, Australia'n gobernua ren aginduz euki dabengaitik laga-ta, pilosopi ta teologia ikasteko katoliko abade-ikastetxe baten sartu da.

Munich'en, Reichlin-Meldeg, azkenengo gudan adoretzu ta ospetsu izan zan gudalburu (general), Prantzizkotaf sartu zan, eta oraintsu Dietfurt'eko prantzizkotaf en eleizan eskintzak egin ditu, Anai Andon' izentzat artuaz. Ofez gainera beste askoren artean, lenago aitatu doguzan René Villate, Mozorof eta abaf.

Yaunari eskefak bere argia ikusi dabelako.

## *Izotz artean txauburu.*

Oraintsu noruegataf Amundsen, asartuak Ipar-buru edo Polo Norte'ra egin dabengaitik ostereak artuta itxi gaitu. Ba, orain yakin da, Mary's Igloo, dala gizonaren biztokiaren mugea, andik auffera, gizonik ez da aurkitzen-eta. Eta bertan aurkitu eban Bernard Aba, katolikotafa, eskimal gixajoi, gure ziñestea erakustera yoana. Amar urtean bertako txauburu izan da. Bere amabi txakuf lagun zituela milaka kilometroak ibili eida, ango tokiak arakatzen. Ango gora-berak azaltzeko, Ginebra'n itzaldi batsuk egingo ditu.

## *Abadeak Ministro.*

Europa'ko latefietan abade ta ministro ainbat dira, Seipel, Brauns, Vasz eta Nolens beintzat eta ointxe Lituania'n, Atzeri arasoetako ministro, Miecys Reyns yauna egin dabeg.

## *«Nobel» Saria*

Dirudienez Nobel elerti saria aurtan Sigrid Undset noruegataf emakume idazleari emongo dautse. Emakume au esan gendun lez, igesko Domu santuetan gure ziñestera biurtu ta ugutzaua izan zan. 1924'n sari au Ladislas Reymond, polonitaf idazle katolikotafak irabazi eban, ilun-zaleak gareala baña!...;

## *Nizea'ko Eleiz Batza'aren XVI'n gizaldiufena.*

Nizea'ko eleiz batza' au izan danik ospetsuenatarikoa izan zan, lenengo orokora eta bertan Kisto'ren Yaunkotasuna artotaf en aurka argiro azaldu zalako. Au ospatzeko eta bide batez sorkaldeko eleiz banakatuak Efoma'ko egizko baka'ragaz alka'rtzeko asmoaz, Aita Santuak urte u'en au andikiro ospatzea gura izan dau. Eta Laterano'ko eleizan egin diran yai andien ondoren, Batikano'n inoz egin ez dan eleizkizuna egin da. Gergeraz (rito griego) gotzain mesea esan, Aita Deuna buru dala. Oso andikiro urten ei dau. Yaupa Basilio Suci gongotzain yaunak esan eban, beste bost gotza'nek lagunduta. Gauza benetan edefa izan ei da.

# ZER EDO ZER

## *Kristiñau-irakaskintza.*

**L**ENGO zenbakian esan gendunez, guraseoi, guraso diranez, euren umeak azi ta ezitea dagokie.

*Beařkun* ori eurena da izate legez, au da Yaungoikoaren gurariz. Baita *eskubide* ori eurena da, umeak Yaungoikoaren ufengo gurasoenak diralako.

Beraz ez dau iñok ez da Lateřiak be, eskubiderik eskubide onein aurka, eskubideok Lateřiak sortu baño lenagokoak dira-ta, izatezko legetik sortzen diranak.

Lateřiaren zeregiña, gurasoak beařkun au bete dayen bideak eřaztu, lagundu eta utsuna betetea da, ez gurasoak kenduta euri dagokien tokian yařtea. Baita ikusi gendun, irakaslea gurasoen ordezko baño ez dala, eta irakaslea etxera ekarten dabenak, bere ordezko lez ekarten dabenez; etxera ekaři beařean bere semeak ikastolara bialtzen dituanean, irakasleen eskuetan ipinten ditu, bere izenean eta eskubidez eta aginduz semeak ezi eta mendu daizan. Arlo oneri yařaituaz, gaur kristiñau irakaskintzaz zerbait esan daigun.

## *Gurasoak eta kristiñau-irakaskintza.*

Baňa gurasoak, kristiñau diranez, beste beařkun aztun bat be ba'dauke, Umeai oitura onak eta kristiñau-ikasbidea irakasteko beařkuna. Au Eleiz Legediak argiro erakusten dau: «Gurasoak euren umeai, erlejiño ta oitura onak egiñalean irakasteko beařkun aztun aztuna dauke» esanaz. (C. I. can III-3).

Yakiña: eskubide au Eleiz Amagandik ařtutakoa da; bere izatez Eleiz Amari kristiñau-ikasbidea irakasteko eskubidea dagokio-ta. Yesu-Kisto'ren itzak: «Zoa-keze eta irakatsi gustie» bialduei esandakoak dira, eta beraz eleizagandik ařtutako eskubide barik, besteri ez dagokio irakasterik. Eta au nai ta ezko irakaskintza da, eta Eleizak bide zuzenez gurasoak beařtzen ditu, eskubidea gurasoen gañetikoa dala-ta.

## *Eleiza Ama ta ikastetxeak.*

Beraz Eleiza Ama'k Yaungoikoagandik artutako agindua daukon ezkeru, kristiñau-efietan ezin leikio iñok ikastoletan irakasteko daukon eskubidea kendu, eta



auxe dala-ta, onen aurkako irakatsiak IX'n Pio'k, *Syllabus* idaztian XLV ta XLVI atalean gaiztetsi eta kondenau zitudan, eta katolikotar izan nai dabenak ezin leiz egiztat euki.

### *Leon XIII'aren itzak.*

*Libertas* deritxon idazkian, Aita Santu yakintsu arek auxe ziñoan gai onetzaz: «Eleiza azi-ikaspen edo edukaziñotik aldendu gura izatea, okef aundi ta kaltegaria da. Gizartean oitura onik ezin leike euki erlejiñoa kendu ezkerok.»

Ekandunen irakasle egizkoa, eta oitura onen zaintzalea Eleizea da.

Au bañiz edonon egiztuta dakusgun gauza da. Kristiñau-irakatsietatik eñiak aldentzen diran neñiz, oiturak bide zuzenetik aldentzen dira. Eta kristiñau ikasbide barik, Eleiza aintzat artu barik, oitura txaraz zuzentzeko egiten diran alegiñak ia gustiak alpefekoak dira. Beti izango da egi utsa Igarleak esandakoa: «Yatingoikoak etxea iragiten ezpadau, yasoten diarduenak alpefeko lana egiten dabe.»

Auxe dala-ta agintari zur batek, naiz ta Eleizaren semeartetik urtena ez izan, bere eña zuzentzeko lenen egin ebana, kristiñau-ikasbidea ikastola gustietan ondo irakasteko, legez, agintzea izan zan, Italian egin dabela gustiok dakigun lez. Orixe da agintari zura ta *sur* onekoa izatea.

Au gauza garantzitsua eta gizartea zuzentzeko beaf dan onafia dalako, Eleizak

beti ardura andienaz begiratzen dautso.

Eta ara amaitzeko gaurkoz,

### *XI'en Pio'ren itz batzuk.*

Lasale'tar Yon deunaren «Kristiñau-irakaskintzarako» deretxon Anaidia XIII Benedito'k onetsi ebala befeun urte aurtent bete diralako, XI'n Pio Aita Santuak, Anaidiko buru danari zuzendu dautson idiazki baten auxe diñotso:

«Umeen kristiñau irakaskintzak, eta ez bakañik beafitsuenak, gaur egunean be utsune asko daukoz. Eta au ez da yazoten irakasle gitxi eta ikasle gitxi diralako, euren biotzak mendutea alde batera laga-ta, umeai yakidi gauzak, eta eurak be sañitan guzuzaz nastauta, irakasten yakoza-lako baño. Gaur egunean bide gustiak artzen dira ikastolea Eleizaren zaintzepetik atarateko. Eta ortik Eleizagaz zer ikusirik ez daben irakasbidea sortu da, eta berau dala-ta, Goiko gauzak aitatutea be baztertuta, gauzarik txarñak be umeen biotzetan sañtu leikez, bere irudimena yaraituaz; eta oretara ezkerok esan leike, ikastolea ez dala ekandunaren etxea, guzuzaren irakastola eta oitura txarñ ikastokia baño.»

Egi garatzak, baña egi argiak dira, irakasle, guraso ta agintariak gogoan sañi erabili beaf leukiezanak; bakoitzak bere mañan bere beafkuna beteta, egizko giza-bideari indafa emoteko.....

# BELEN'GO YAYOTZA

Gau zoragari-zoragaria  
gau edef eta argiena,  
Yayotza guztiz arigarria  
gertau zana Yosuren.  
Belen'go uri zorionsuan  
aratseko gaberdian,  
yayo zan Yosu gure Yainkoa  
abere etxe batean.

Abere batsuk laguntzat eta  
lastotxoak seaskatatzat,  
¡Apaltasunan ikasbidea  
edef-edefa guretzat!  
Yaungoikoaren Seme maitea,  
gizonen maitetasunez,  
aurtxo gaxoen irudipean  
otzaz dakusgu dardarez!.....

Iluntasuna igesi doa  
Belen inguruetatik,  
Yosu aurtxoan argi bizia  
zabaltzen dala bertatik.  
¿Zetako da ba gau baltza eta  
zetako iluntasunak,  
ludi gustira eldu ba'dira  
argi bizi ta zorunak?

Aurtxo txikian argitasuna  
artzañagana eldu zan,  
lotan egozan artaldeak be,  
gustiak esnatu ziran.  
«¿Zer gertatzen da? Zer da argi au?»  
alkafi galdetzen eutsen,

biotzak bariz taupa zoliak  
bildurez egiten eutsen.

Baña Jaunaren, gotzon zolien  
abots-argia entzun da:  
«Ez bilduf izan; izpaf au gustiz  
pozgarria izango da. Dabid-urian  
yayo yatzue gauf Azkatzalea dana  
Kisto deritxo, ludi gustiko,  
Bakalduna eta Yauna.

Ezagutzeko ikufa bariz  
auxe damotzuedana:  
Eunez bilduta aurtxo txikia  
azkatxo baten etzana.»  
Ta bat-batean gotzon onegaz  
donoki aldra batuta,  
Yaungoiko ona goraltzen eben  
eresintu abestuta:

«Yaungoikoari zeru goyetan,  
aintza ta aintza  
ugari,  
Lufan bariz  
gentza-zoruna  
gogo zintsodun  
danari.»

Donokiratu ziran gotzonak  
eta artzañiak esan eben:

«Goazen gustiok  
Belen'era,  
yayo dan Yosu

ikustera.  
 Goazen bai arin  
 Aurfagana  
 eskintzen pozez  
 biotz bana.  
 Aítu lagunak  
 bildotz onenak,  
 aítu gaztairik  
 edeíenak;  
 opalduteko  
 Yaun Aurtxoari  
 gure gauzarik  
 maiteenak!»  
 Eta arin-arinka,  
 arnasa oska,  
 eltzen zirala  
 Belen'era,  
 zuzendu ziran  
 atsedean barik,  
 Yosu zegoan  
 txabolara.  
 Ikusi eben  
 Ama ta Yoseph  
 Yaungoiko-aufaz  
 egozala,  
 seaska ordez,  
 galtzu apur bat  
 abere askan  
 eukiela.

Bildurtu ziran au ikusirik,  
 ez ziran saftzen asaítu,  
 baña Yoseph'en deya entzunda  
 pozkiro ziran makuítu.  
 Emaítzak emon ta gurtu eben  
 ludiko Yauna biotzez,  
 «Aurtxo maitea onetsi gaizuz»,  
 esanaz maitasun utsez.

Gerotxoago zuzendurik ba  
 Miren eta Yoseph'gana:  
 «Dakusgu Aurtxo edeí-edeí au  
 txirotasunaz dagola,  
 emakumetxo gaxo-gaxoa,

biotza mintzen dautzula:  
 zatoze danok geure etxera  
 emongo dogu daukuna».

Onen ondoren eskintzen dautsez  
 euren gauzarik onenak,  
 eta abestu gogo-gogotik,  
 abesti samur-bigunak.



«Eskérik asko» diñotse Ama'k  
 ifibafezko mosuaz,  
 euren burugain ikuturikan,  
 Auf-Yaungoikoen eskuaz.

Ta pozez arte aítu ezinda  
 aldendu ziran bertatik,  
 abesti alaiz Yaungoiko ona  
 aintzaltzen gogo-bafutik.  
 «Gau pozgarí ta alaiz betea  
 gabau gizadiarentzat,  
 aneika bideí zoragafia

izan da baña guretzat.  
Yaungoikoaren Seme maitea  
donoki goitik yatsita,  
ikusi dogu bere Ama'gaz,  
Belen'en Gizon eginda.  
Gizon gaxoen oben estuntzak  
ausi dira ba betiko;  
¿Zelan ez dira gizon gustiak  
biotz-biotzez poztuko?  
Txefen gaiztoen efpe artean  
ain aldi luzez egonda,  
gizadi danak ez ospatuko  
Aurtxo Yaunaren gurenda?  
¡Gora biotzak!  
gizon zintsoak,  
zuen naya ba  
bete da.

Poztu zuok be  
obendioak,  
yopu-aldia  
yoan da.  
Gora ta gora  
gizadi oro,  
alaitu danok

gogotik  
Azkatasunen  
Euzki argia  
yatsi dalako  
zerutik...»

Artzañak legez  
goazen gu bere  
kistañ zintso lez  
Belen'era,  
Gure gogoak,  
sentsun, biotzak  
Aur maiteari  
eskintzera.  
Ludi onetan  
yaritxi daigun  
beren eskutik  
zoruna,  
eta zeruan  
beti-betiko  
atseden toki  
biguna...

GABIREL

# Andik eta Emendik

## Kardenal bafiak.

Ilia onen 14'n Aita Deunak lau yanzkordun (kardenal) bafi egin ditu, Zefeti, O'Donnel, Gaspari ta Verde jaunak.

Zefeti Bonabentur yauna, Paris'en Aita Santuaren ordelari dana. Oraintsu Prantze'ko agintariak «Legion de Honneur» deritxon gurutza emon dautsoe. Heriot'ek oraintsu esan dau «berak ezagutu dituan diplomatiku gustien artean Zefeti yauna begikoen egin yakola». Eta *onek* ori diñonean zeozer izango da. 54 urte ditu.

O'Donnel irlandarra da. Loge yanzkordun ospetsuaren ondorengoa gotzaintzan. 70 urteduna da, eta igestik d'Armagh'eko goi-gotzaña.

Gaspari Enri, Brasil'en Aita Deunaren Ordelari dana, eta Zefeti jaunak lez 54 urte ditu.

Eta Alexander Verde Eleiz Oikuna'k (Ritos) erabagiten dituan bazkunako idazkaria, Itali'tafa da, 60 urteduna.

## Gustiz zenbat?

Kardenalak, legez, irurogetamañ dira, baña zerbaki au inoz be ez da osotu, ointxe baña ur dabil, orain izentautako laurakaz 69'ra eltzen dira-ta.

Inoz lenago be esan dogu toki onetan, kardenalak iru taldetan banatzen dirala. Kardenal-gotzañak, kardenal-yaupariak eta kardenal-diaconoak. Sixto V'k 1586'ko lotazilaren 5'n erabagi ebanez, Yanzkordun-yaupariak 50 izan beaño ziran; 6 kardenal-gotzain, eta 14 yanzkordun-diacono.

Oin legea bafiztau dala esan leike, gaur ba yanzkordun-yaupari 54 dira.

69'tik 35 italiñak dira, eta 34 enparauak beste lateñietakoak. Lekaide (pafe) artekoak 12, eta beste 12 oindiño gotzain ez diranak.

Kardenal gustien artean zañena, Vannutelli yaun agurgaria da, 89 urte ditu, eta 1890'n XIII'n Lon'ek yanzkordun autu eban.

Gazteena Askelesi Napoles'ko goigotzain yauna da; 53 urte ditu, eta 1915'n Benedito XV'n yanzkordun autu eban.

## Ziñeste zabalkunderako 1924'n.

Ziñestea zabaltzeko, igesko urtean bildu dana 40.000.000 lira dira.

Geyen emon daben lateñi izenak onexek dira:

Lateri-batzak (Estados Unidos'ek)	16.462.875	lira.
Kanada'k	1.555.585	»
Prantziak	6.417.601	»
Olanda'k	2.264.429	»
Alemania'k	1.682.528	»
Italia'k	1.506.044	»
España'k	1.179.854	»
Belgika'k	1.164.236	»
Irlanda'k	1.025.521	»
Luxenburgo'k	181.805	»

Ain txikia izateko Luxenburgo'k asko emon dau, 260.000 biztanle baño ez daukoz-ta.

## Koloseo'ko Kurutzea.

Koloseo edo efomatar yolestokian amaikatxo bider, lenengo gizaldietako kistaf zintsoak euren ziñestearen alde odola ta bizia emon ebela edonok daki. Ba toki onetara ibilkundeak egitea egoki zala-ta, Porto Maurizio'tar Leonardo prantziskotar deunari otu yakon, toki aretan Kurutza andi bat ipintea. Eta XIV'n Benedito'ren baipenaz alantxe egin eban.

Baña 1874'n, aztarketa batsuk egitea aitzakizat artuta, kurutza ori kendu eben, eta orain arte ain barik egon da, kurutzaren maitasunez ainbeste odolez bustitako lufak, deadarka eskatzen eban afen.

Azkenez be, Yaunari eskeñak, agintarien baipena lortu da ta abenduaren lenengo egunean, kurutzea ipiñiko dan tokian lenengo oin-aria onetsi dabe. Añi onen bañuan, oitura dan idazkia gañera, Kalbario mendiko añi zati bat, eta Getsemani'ko orio-zugatzen atal bat ipiñi dituez.

## Urte Deunaren amaya.

Ilia onen 24'n Urte Deuna amaitu dala adirazteko, Jubileo'ko Ate Deunak itxiko dira añatsaldeko ordu bietan. Eta bide batez, oitura danez,

ludi gustirako Jubileoa iragariko dau Aita Santuak, iġa onen 14'ko itzaldian esan dabenez.

Baita urtearen azkenengo egunean Kisto Gure Yauna ludi gustiko Bakaldun dala iragariko da eta oġetarako munduko eleiz katolikotaġ gustietan gizadiaren opalbena egingo yako.

### **Basafikeria.**

Izpaġingi katolikotaġ baten ezertarako *protesta* ðarik auxe irakuġi dogu: 1925'n urteko lenengo bederatzi iġa beteetan, bakaġik, Espaġa'n zezenketan il diranak 10 dirala, eta zaurituak 177.

¡Guzurġa dirudi!.....

**M'taf G.**

